

HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK



AUTISMOA
ZURE SEME EDO ALABARI
NOLA LAGUNDU

12



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

AUTISMOA

Zure seme edo alabari nola lagundu

EGILEAK

Leicestershire Konderriko Hezkuntza Saila

Autismoaren inguruko kontsulta-zerbitzua

Penny Barrat

Hezkuntza Psikologia zerbitzua

Christine Cassell

Bessie Hayes

Tink Reader

Philip Whitaker

“Fosse” Osasunerako fundazioa, Osasuneko Zerbitzu Nazionala

Logopedia-zerbitzua

Alison Parkinson

Argitaratzailea: NATIONAL AUTISTIC SOCIETY

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Kultur Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deporte

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2002

Argitalpena: 1.a, 2002ko abendua

Ale-kopurua: 500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkutza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Konposaketa: Composiciones RALI, S.A.
Particular de Costa, 8-10, 7.^a - 48010 Bilbao

Inprimaketa: Estudios Gráficos ZURE, S.A.
Carretera Lutxana-Asua, 24-A - Erandio-Goikoa (Bizkaia)

ISBN: 84-457-1903-3

Lege Gordailua: BI-2777-02

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bere eskerrik beroenak luzatu nahi dizkio Erresuma Batuko Autismoaren Erakunde Nazionalari, honako esku-liburu honen argitalpena ahalbidetzeko orduan eskainitako lankidetzara oparoagatik.

Jatorrizko izenburua:
Autism, How to help your young child

Lehenengo argitalpena (1988) Erresuma Batuko Autismoaren Erakunde Nazionalak egin zuen.

393 City Road. London EC1V 1NE.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debebatuta dago kopiatzea, informazioa berreskuratzeko sistemetan gordetzea, edo argitalpen honen zati bat igortzea, erabiltzen den metodoa edozein delarik –elektronikoa, mekanikoa, fotokopia, grabazioa edo beste edozein–, jabego intelektualaren eskubideen titularrek alde aurretik baimenik eman ez badute.

© **The National Autism Society**

Ingeleseko itzulpena:

Elena Campo Alonso

Ikuskapen teknikoa:

Joaquín Fuentes Biggi

Medikuntza Aholkularia. GAUTENA

Argitalpenaren koordinazioa:

Alicia Sainz Martínez. Garapenaren Asaldura Orokorrak programaren teknikaria. ISEI-IVEI Irakas-sistema ebaluatu eta ikertzeko erakundea/ Instituto vasco de evaluación e investigación educativa.

Argitalpena: Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, GAUTENArekin lankidetzan.

ESKER ONAK

Egileek liburu hau, “Fosse” Osasunerako Fundazioarentzat eta Leicestershire Konde-
rriarentzat lanean ari ziren bitartean egin zuten. Ideia, seme-alabei laguntza ematearen in-
guruan aholkuak emateko premiatik sortu zen, haur autisten guraso askok erakutsitako
kezka eta gai honi buruzko argitalpen gutxi zeudela ikusita.

Eskerrak eman nahi dizkiegu atariko bertsioak emateko denbora eskaini diguten gura-
so eta kide ugariri, bai eta lana prestatzen lagundu diguten laguntza-taldeko kideei ere.

AURKEZPENA

2002. urtean hogei urte betetzen dira Euskal Autonomia Erkidegoan HEZKUNTZA BEREZIKO PLANARI hasiera eman zitzaionetik.

Plan honek ordura arte “hezkuntza berezikotzat” hartzen ziren inguruneetan tratatu ohi zen ikasleriari erantzun bat emateko berebiziko aldaketak ekarri zituen hezkuntza zerbitzuen antolamendu eta planteamenduaren aldetik.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Hezkuntza Sistema osatu, solidario eta kalitatezko batean oinarrituta, gai horretan sakontzeko asmoa erakutsi du beti. Hezkuntza Sistema horrek aukera berdintasuna bermatu, eta hezkuntza premia bereziak dituzten pertsoneri arreta pertsonalizatua eskainiko die, aniztasuna errespetatuko du eta sentsibilitatea erakutsiko du.

Eusko Jaurlaritzak ikuspegi hori kontuan hartuta eraiki zuen HEZKUNTZA BEREZIKO PLANA; kolektibo horri erantzuna sektorearen Indibidualizazio, Sektorizazio, Normalizazio eta Integrazioko parametroetan oinarrituta planifikatuz.

Planean jarraitutako ildo nagusiak eguneratu egin dira azken urteetan, baina beti ere garapenaren arloan desoreka orokorrak dituzten ikasleen eskola ulerkor eta integratzailearen erreferentzia esparruarekin.

Argitalpen honetan eranstean diren materialak, Erresuma batuko THE NATIONAL AUTISTIC SOCIETYk utzitakoak, GAUTENAREN bitartez, erabilgarritasun handikoak dira, bai irakasleentzat, bai eta Hezkuntza Premia Bereziak dituen ikasleriaren gurasoentzat ere.

Argitalpen hau, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak kalitateko euskal eskola lortzeko ekimenak sustatzeko interesaren erakusgarri da. Euskal eskola horretan, gizarte justu, orekatu eta aurrerakoia eraikitzeko ezinbestekoa den banakako eta gizarte-mailako elementu gisa ezagutza hedatu eta garatuko dute.

ANJELES IZTUETA AZKUE
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua

AURKIBIDEA

Sarrera orokorra	15
Diagramen aurkibidea	17
1. UNITATEA: Gizarte-elkarrekintza	21
Sarrera	21
Alderdi orokorrak	22
Gizarte-interesa eta -kontzientzia	23
Hasi aurretik	23
Kontaktu fisikoa: hurbiltzea lortu	23
Kontaktu fisikoa: oraindik gehiago hurbildu	24
Kontaktu fisikoa: aurrera egitea	25
Minaren aurrean segurtasuna eskaini	26
Lotsarik ez sentitzen ikasi	27
Besteengana hurbiltzen lagundu	28
Aurrez aurre begiratu	29
Bista bidezko harremana hobetu	30
Besteei ulertzeko gakoak bilatu	32
Entzuten ikasi	33
Interes partekatuak	34
Hasi aurretik	34

Begira!	35
Gauzak elkarrekin egin	36
Gizarte-jokoa	38
Hasi aurretik	38
Nirekin jolastu	38
Txandak egin	40
2. UNITATEA: Komunikazioa	43
Sarrera	43
Hasi aurretik	44
Soinuak egin	46
Esanahiak partekatu	47
Tresna gisa erabiltzeari utzi	48
Keinuak ulertu	50
Seinalatzen ikasi	51
Aurpegi-espresioak ulertu	52
Hitzak eta hauen esanahia ikasi	53
Hitzak etiketa baino zerbait gehiago bezala erabili	55
Lengoaia ulertu	56
Oihartzun-motako erantzunak saihestu	58
Hitzak bateratu eta erabiltzen ikasi	59
Jendeak esan nahi duenaren esanahia ikasi	60
Elkarrizketaren arauak	62
3. UNITATEA: Irudimena eta ohitura-premia	65
Sarrera	65
Jolas-trebetasunak garatu	66
Hasi aurretik	66
Obsesioak gizarte-joko bihurtu	66
Obsesioak, joko zailagoa garatzeko erabili	68
Imitatzen ikasi	69
Beste hurrekin partekatzen ikasi	70

Simulazio-jokoetarako lehen pausoak	71
Imitazioak eta simulazio-joko errazak baino urrutirago joan	72
Errepikapeneko jarduerak	73
Hasi aurretik	73
Ingurunea egitaratu	74
Ondoren datorrena ezagutu	74
Aldaketetarako prestatu	75
Tikak eta mugimendu estereotipatuak	77
Trebezia berriak obsesio zaharretarako	78
Objektuak mugatu, tokiak mugatu	79
Denbora mugatu	80
Ingurunea aldatu	81
Gauzak egiteko modua aldatu	82
Laguntza, jarrerak orokortuz	83
Helbide erabilgarriak	85

SARRERA OROKORRA

Haur autistek hiru eremu nagusitan aurkitzen dituzte zailtasunak:

- Gizarte-elkarrekintza
- Komunikazioaren alderdi guztiak (ahozkoa eta ahozkoa ez dena)
- Pentsamendu-zurruntasuna eta irudimen-falta

Haur autista gehienek, ezohizko eta errepikatzen diren tik-ak dituzte. Haur autista identifikatzeko, bere jokabidearen eta zailtasunen ezaugarriak multzoan hartu behar dira eta ez ezaugarri isolatuak.









Autismoak bizimodu diferenteko haurrengan du eragina, herrialde, kultura eta gaitasun-mailetan erreparatu gabe. Hala ere, haur autistak oso ezberdinak dira elkarren artean, eta autismoaren ondorioak arinak edo larriak izan daitezke. Haur autista baten koadro orokorrak aldaketak izan ditzake adina, sexua, nortasuna edo edozein urritasunen eraginez.









Haur autista bati laguntzeak asko exijitzen du eta aurrerabidea motela eta mugatua izan daiteke. Gustatuko litzaiguke zuretzat eta zure familiarentzat erabilgarriak izatea ondoren proposatuko ditugun iradokizunak. Batzuk besteak baino garrantzitsuagoak izan daitezke, eta beste hainbat desegokiak. Haurra, ondoren eskainiko ditugun diagramen artean identifikatzen ahalegindu zaitez eta proposatzen ditugun iradokizunak erabilgarriak ote diren egiaztatu. Ez kezkatu iradokizun batzuekin helburuak lortzen ez badituzu. Antzeko gauzak saiatzeko jarraibide gisa erabil ditzakezu. Hainbat ideia errepikatu egiten dira ataletan, eta irakurtzen ari zaren neurrian ideiak, aldaketa txikiekin, behin eta berriz errepikatzen direla antzemango duzu.

Liburuaren amaieran, erabilgarriak izan daitezkeen hainbat zerbitzu eta erakundetako telefono-zenbaki eta helbide aurkituko dituzu.





DIAGRAMEN AURKIBIDEA

1. UNITATEA: GIZARTE-ELKARREKINTZA

-  Badirudi Adam bere munduan bizi dela. Besteei inoiz ez die arretarik eskaintzen, batez ere haurrak badira 23
-  Sophie-k ez du bera ukitzea edo besotan hartzea gustuko 24
-  Zaila da jakiten Michael nondik nora aterako den; ezin dugu inoiz jakin zein neurritaraino uki dezakegun, oso aldakorra baita 25
-  Inoiz ez dakigu Reena pozik ala triste dagoen. Ia inoiz ez du mina edo plazera erakusten. Min handia hartzen duenean ere ez da gugana kontsolamendu bila etortzen eta ez digu ahalegintzen ere uzten 26
-  Nikesh oso gaizki portatzen da jendea inguruan duenean, eurengana hurbiltzen da eta ukitu egiten ditu. Guztia desegokia gertatzen da . . . 27
-  Christopher nigana hurbiltzen denean beti atzealdetik hurbiltzen da, edo nire belauen gainean jartzen da, aulki bat izango banintz bezala . . . 28
-  Nadeem-ek niri begiratzea ezin dut lortu, ez eta oso haserre nagoeanean ere. Inoiz ez dakit zer nahi duen edo nola sentitzen den 29
-  Sam-ek modu egokian begira gaitzan ezin dugu lortu 30




	David ez da nire sentimenduez jabetzen	32
	Charles-ek inoiz ez duela ezer entzuten dirudi. Bere izenez deitzen diotenean ez da biratzen, eta hitz egiten zaionean ez dirudi entzuten duenik.	33
	Victor-ek intentsitate handiko soinuak entzuten ez dituela dirudien arren, gozokiaren bilgarriaren soinua entzuteko gai da. Zenbaitetan beldurtu egiten da soinu arin batekin	33
	James-ek niri erakusteko inoiz ez du ezer ekarri	35
	Tom-ek jostailu eta jokoeziko interes pixka bat erakusten du eta inguruan jendea egon dadin onartzen du, beti ere eragotzi edo parte hartzen saiatzen ez badira	36
	Sarah-k inoiz ez du taldean aritzeko haur-jolaseziko interesik erakutsi.	38
	Hannah inoiz ez da ahalegintzen berekin jolas dezadan eta, aritzen naizenean eskuak kentzen dizkit edo alde egiten du. Ez zaio ezer axola . .	38
	Ez dut Barbarak nirekin jolas dezan lortzen. Inoiz imitatzen ez didala jabetu naiz	40

2. UNITATEA: KOMUNIKAZIOA

	Sarah-k dagoeneko ez du zezeltzen, lehen egiten zuen arren. Zenbaitetan soinuak egiten ditu, baina ez dirudi hitzak direnik	46
	Yatin-ekin hitz egiten dudanean, objektuak hartu eta erakutsi egiten dizkiot zertaz ari naizen jakin dezan; hala ere, ez dut uste objektuaren eta esaten ari naizenaren artean inolako erlaziorik aurkitzen duenik .	47
	Joel-ek zerbait nahi duenean, besoa hartu eta bertara eramaten nau . .	48
	Jaswinder-i zerbait irakasten ahalegin handia egin arren, ez dut lortzen seinalatzen dudana begira dezan. Begiratu besterik ez dit egiten, ezer ulertu gabe	50

	Gary-k zerbait nahi duenean, edozein tokitara igo eta hartu egiten du, inoiz ez du seinalatzen	51
	Behin, Richard-i nire aurpegiaren espresioarekin, egiten ari zen hartan interesatuta nengoela erakusten saiatu nintzen, baina ustez ez zidan ulertu	52
	Ross-ek hainbat hitz imitatu eta behin edo bitan errepikatzen ditu, baina ondoren ez ditu gehiago erabiltzen. Inoiz ez du hitzetarako interesik eta ez du gauzarik kontatzen anaiak egiten zuen moduan	53
	Daniel-ek hitz asko erabiltzen ditu. Bere inguruko gauza guztiak izenda ditzake, baina ez du inorekin hitz egiten	55
	Alison-ek esaten dugunaren zati batzuk besterik ez du ulertzen	56
	Aaron-ek, esaten dudana guztia errepikatzen du, geratu ezinik. Galde-tzen badiot: “Zer ari zara egiten?”, berak nire azentua erabiliz “Egiten” erantzuten du	58
	Adam-ek gauzak izendatzen ikasi du, baina oraindik ez du esaldirik egiten	59
	Robin-i behin ondoko hau esan nion: “Sukaldetik plater bat ekarri”. Bera norabide zuzenean joan bazen ere ez zen platerarekin itzuli “ekarri Robin” esan nion arte	60
	Rosie-k asko hitz egiten du, baina inoiz ez besteek diotenarekin lotuta. Sarritan elkarrizketa eteten du eta inoiz ez dio elkarrizketako lagunari begiratzen	62

3. UNITATEA: IRUDIMENA ETA OHITURA-PREMIA

	William, hartutako guztia lurrean biraka jartzen saiatzen da; gu beti kanpoan uzten gaitu	66
	Michael-ek iturriko urarekiko obsesioa du	68
	Orain Hugh-ek bere ondoan jolasten uzten badit ere, ikusezina bantintz bezala tratatzen nau	69

	Simon-ek bere ondoan jolasten uzten badit ere, bere arreba txikiari ez dio hurbiltzen uzten	70
	Gabonetan, Dharmesh-i jostailuzko sukaldea oparitu genion, baina ez daki zer egin	71
	Jamie-k irudimena du jolasean, baina beti gauza berak egiten ditu eta beti Playmobil-eko panpinekin	72
	Harpreet ez du ezerk lasaitzen. Erretiratzen ari den zauritua dirudi. Beti ihesi dabil	74
	Michael-ek behin eta berriz gauza bat eta bestea noiz egingo ditugun galdetzen du. Nire erantzunez ez da jabetzen	74
	Ustekabeko zerbait egiten badugu edo bere ohiturak jarraitzen ez baditugu Suresh haserretu egiten da	75
	Jack-ek eskuak ero gisa mugitzen ditu haserretu edo urduritzen denean. Norabide guztietan oin-puntetan lasterka egiten du eskuei hegoen moduan eraginez	77
	Jo-k munduko txapelduna dirudi uztaiaz jolasten, baina ez daki beste ezer egiten	78
	Graham-ek begien aurrean bere eskuartera heltzen den edozein objektu birarazten du. Une horretan isolatu egiten da eta ezin dugu bere bakartze horretatik atera	79
	Utziko bagenio, Emily-k bideo-zinta bera ikusiko luke behin eta berriz.	80
	Craig-ekin bizitzea museo batean bizitzea bezalakoa da. Gauza guztiek beti leku berean egon behar dute	81
	Erosketetara goazenean Jordan-ek ibilbide bera egin nahi du beti. Oheratzeko prestakuntzak gauero modu berean egin behar dira	82
	Mohammed-ek haurtzaindegian gazta jaten duen arren etxean ez du probatzen	83

1. UNITATEA: GIZARTE-ELKARREKINTZA

Sarrera

Haurrak jaiotzen direnean normalean lagunkoiak izateko eta komunikazio-trebeziak garatzeko prest egoten dira. Bizitzako lehen egunetatik, euren inguruan mugitzen den jendearen aurpegiekiko interesa erakusten dute. Haur txikiek senez badakite pertsonak garrantzitsuak direla kontsolamendua bilatzeko, poztasun-uneak elkarrekin bizitzeko, euren-gandik ikasteko eta imitatzeko eredu gisa erabiltzeko. Zerbait behar dutenean berehala ikasten dute helduengandik laguntza jasotzen.

Ama eta hauen haurtxoekiko egindako azterketek erakusten dute, elkarren artean “elkarrizketak” dituztela. Eredu bat jarraitzen dute, txandak ezarriz eta ulermena partekatuz lengoaiaren garapena hasi baino askoz ere lehenago. Haurtxoek berehala “konektatzen dute” gurasoekin eta aurpegiko adierazpenaren eta gorputz-lengoaiaren bidez jakinarazten diren mezu estaliak jasotzen ikasten dute. Horrenbestez, euren-gandik espero dena eta modu jakin batean jokatzeko egokia noiz den ikasten dute. Gai dira norbait pozik edo triste dagoen eta sentimendu horiek zer esan nahi duten antzemateko. Aurrerago, eta poliki-poliki, jendearekiko harremanen inguruko arauak, idatzita ez daudenak, ikasten dituzte.

Hori guztia oso zaila gertatzen zaie haur autistei. Pertsonenganako interes txikiagoa erakusten dute. Gauzak beste ikuspuntutik ikusten kostatu egiten zaie eta sarritan euren munduan sartuta daudela dirudi.

Unitate honetan ondoko alderdi hauek hiru ataletan aztertuko ditugu:

- gizarte-interesa eta -kontzientzia

- interes partekatuak
- gizarte-jokoa

Alderdi orokorrak

- Gogoratu, haurraren eta bere inguruko guztien bizitza-kalitatea hobetzen saiatzen ari direla. Haurrari sozialki modu egokiagoan joka dezan lagundu nahi zaio, besteek bere aurrean hobeto erreakziona dezaten eta haurra zoriontsuagoa izan dadin.
- Zure seme-alaba sakonki ezagutzen ikasi. Atsegin duena eta gustukoa ez duena, nahi edo behar duena, zein gauzari erantzuten dion, nork lortzen duen beregandik gehien ateratzea, zer egiten dakien eta zer gauza egiten duen ondoen ezagutu. Beharbada, erabilgarria izan daiteke egunkari batean interesgarriak iruditzen zaizkizun gauzak biltzen badituzu.
- Zure bizitza osoa berari ez eskaini, baina berarekin ematen duzun denbora ondo erabiltzen ahalegindu.
- Anai-arreben txantxetatik eta beste haurren larderiatik babestu. Euren jokatzeko modu berezia ulertzen eta kontuan hartzen lagundu.
- Euren eguna aurretik iragarri daitekeen moduan eta segurua izan dadin ahalegindu, ohitura erregularra eta adierazgarria ezarri. Egunaren hasieran hitz gutxitan gertatuko dena esaiozu, berak asimilatu eta aurrea hartu dezan. Bat-bateko aldaketak saihesten saiatu, baina beharrezkoak badira, eurei aurre egiteko prestatu.
- Iradokitzen dituzten jarduera ugari normalean haur askoz ere txikiagoekin jartzen dira praktikan. Pixka bat tuntuna senti zaitezke. Bestalde, deserosoa gerta daiteke haur handiagoekin haurtxoen jolasekin ibiltzea; hala ere, burutu daitekeen gauzarik erabilgarrienetako bat da. Bestalde, kontuan izan behar dira haurraren adina eta sexua, bai eta testuinguru espezifikoa ere. Beste pertsonak haurrarekin batetik atsegin, pazient eta irmo, eta bestetik zentzudun izan daitezen eskatu.
- Senideei gauzak beti modu berean egin dezaten eskatu. Oinarria garrantzitsua da, izan ere haurrari bere inguruan gertatzen dena eta beregandik zer espero duten ulertzen lagunduko diote.
- Ez ahaztu haurrarekin hitz egiteaz gauzak elkarrekin burutzen dituzuenean.

GIZARTE-INTERESA ETA -KONTZIENTZIA

Hasi aurretik

- Oihalak aldatu, jantzi, bainatu, jaten eman eta antzeko eguneroko jarduera arrunten bidez haurtxoekin eta haur txikiekin naturalki sortutako harremanak, dibertigarria izan behar du. Une horiek bere hatz, ile eta aurpegiarekin presarik gabe jolasteko aprobetxatu.
- Saia zaitex bere munduan sartzen. Noizean behin bertan zaudela nabarmendu behar duzu. Berekin aritzen zarenean, denbora laburrean egin, baina sarritan. Hori, denbora luzean egotea baino hobea da.
- Ahotsa ez igo eta bere aurrean lasai egon. Haserre zaudenean ahalegin handirik ez egin haurrarekin jolasteko. Mugimendu motel eta arinak egin behar dituzu, barre egin eta sarri ukitu. Beroa eta aldi berean errealista izaten saiatu, gehiegizko baikortasuna eragin gabe.
- Haurtxoarekin jolasten ari zarenean, edo jantzi eta garbitu bezalako eguneroko jardueretan ari zarenean, bere mailan jarri belaunikatuz edo lurrean eserita. Era antolatua berekin lan egiten duzunean, altuera egokian kokatutako mahaia eta aukia erabiltzea komeni da.

Kontaktua fisikoa: hurbiltzea lortu



Badirudi Adam bere munduan bizi dela. Besteie inoiz ez die arretarik eskaintzen, batez ere haurrak badira.

Ulertzeko gakoak

- Hainbat haur autistak euren burua hotza edo oso bakarrik eta isolatuta erakusten dute.
- Beste haurrak saihesten ahaleginu daitezke, ez ikusiarena eginez edo bertan egongo ez balira bezala jokatu.
- Beste zenbait haurrek lagunak jo edo bultzatu egiten dituzte itxuraz inolako arazoirik gabe.
- Zenbaitetan badirudi mundu guztia modu berean tratatzen dutela, ama edo aita bereizi gabe.

Estrategia erabilgarriak

- Bere adineko haur bati egingo zeniona baino gehiago ukitu, hasieran gozaten ari dela adierazten duen inolako keinurik ez egin arren.
- Etxean besotan duzunean hainbat mugimendu egin: kulunkatu, berekin dantzatu, gorantz igo, jaitsi, eta abar. Etenaldiak egin eta berriz hasi. Kexatzen bada edo egozina erakusten badu, beste une baterako utzi.
- Ferekak eta besarkadak eskatzen dituzten jolasak erabili, eta jolas horiek zuretzat ere gustukoak izan daitezen ahalegindu.
- Adam-ek arretarik eskaintzen ez dizunez, ez ikusiarena egiten ez dizula ziurtatu. Beregan hurbiltzean edo bere ondoan esertzen zarenean, zu bertan zaudela jakingo balu bezala joka ezazu. Edozein unetan erreakziona dezake.
- Hasteko, segundo gutxi batzuetarako hurbil zaitez. Jostailu bat eman edo “kaixo” esan diezaiokezu alde egin aurretik. Horrekin gustura dagoenean, bere ondoan emandako denbora luzatu, etengabe zu bertan egotea erabat onartzen duen arte.

Kontaktua fisikoa: oraindik gehiago hurbildu



Sophie-k ez du bera ukitzea edo besotan hartzea gustuko.

Ulertzeko gakoak

- Haur batek autismoa duela goiz hautemateko seinalea, besotan hartzeko zailtasuna da, ez baita bere gorputza eusten ari den pertsonarenera egokitzen. Baliteke bere garaian ez ohartzea, baina bai aurrerago.
- Hainbat haur autista urduritu egiten dira inguruan pertsonak badaude; gerta daiteke haurra altxatu eta alde egitea.
- Zenbaitek ez dute gustuko besteek gozo-gozo edo dudatsu ukitzea.
- Hainbatek besarkadak onartu egiten dituzten, baina zure magalean eseri ondoren bakarrik. Ikus *Besteengana hurbiltzen lagundu* - 28. or.

Estrategia erabilgarriak

- Sophie goxo-goxo ukitu. Laztandu eta besarkatu; bainuaren ondoren bere gorputzean krema eta talko-hautsak ipini eta toaila edo manta leunean bildu eta besarkada bat eman. Ukitzen duzunean, hatzen punta, esku-azpi, masail edo ilearekin egin, gorputzeko hainbat lekutan musukatu.
- Ez ukitu mugimendu dudatsuekin. Baliteke mugimendu irmoak kontaktu leuna baino gehiago gustatzea.
- Jolasean ari denean, bere alboan eseri eta zerbaitekin okupatuta egon. Noizean behin bere jostailu bat hartu eta trukean zure bat eman.
- Aldian behin Sophie-ren eskua hartu eta zugar tira egin, besarkada laburra emateko. Hori onartzen hastean, ez tira hainbeste beregandik, hasierako bultzakada eman baina ondoren bera hurbil dadin utzi.

Kontaktu fisikoa: aurrera egite doitu



Zaila da jakiten Michael nondik nora aterako den; ezin dugu inoiz jakin zein neurritaraino uki dezakegun, oso aldakorra baita.

Ulertzeko gakoak

- Zenbait haur autista bizkorrak eta aktiboak dira. Beste hainbatek afektua erakusten dute eta laztan diezaieten gustukoa dute.
- Zenbaiti jolas bortitzagoak gustatzen zaizkie, harreman leunagoa atzera botatzen duten bitartean.
- Beste hainbat oso zorrotzak eta itsaskorrak izan daitezke, batez ere amarekin.
- Zenbait haurrek, etekin handiagoa lor dezaketen pertsona jakinekiko maitasuna dute.

Estrategia erabilgarriak

- Michael-ekin harremana sustatu. Zure poza erakusteko moduak bilatu. Beste pertsonenganako edozein interes-seinalerik ematen duen adi-adi egon eta pertsona horiek poza erakutsiz erreakziona dezaten saiatu.

- Bera altxatu edo berekin jolasten hasi aurretik, masaila, beso edo eskua leun-leun ukitu.
- Ekintza-jolasak edo lasterketak erabilgarriak dira, baldin eta haurra gehiegi asaldatzen ez bada.
- Denbora eta aukerak bilatu jendearekin harremanak modu naturalean egin ditzan. Poliki-poliki harreman-mota hauek hobetu ditzan lagundu, adibidez, agurtze-mota diferenteak erabiliz edo hainbat pertsona agurtzera bultzatuz.
- Agurtzen (eskua mugituz) edo besotan hartzea nahi duenean besoak zabaltzen irakatsi. Keinu horiek beste hainbat pertsonarekin erabil ditzan lagundu. Hori, errepikatzen diren eguneroko egoeretan aldizka egin. Toki eta une egokian behar dena egin hasten denean, eskaintzen zaion laguntza murriztu. Ikus 2. unitatea - *Keinuak ulertu - 50. or.*
- Gai denean, mezuak eraman, enkargu errazak egin edo “eramaiozu hori aitari” bezalako agindu errazak bete ditzan saiatu.

Minaren aurrean segurtasuna eskaini



Inoiz ez dakigu Reena pozik ala triste dagoen. Ia inoiz ez du mina edo plazera erakusten. Min handia hartzen duenean ere ez da gugana kontsolamendu bila etortzen eta ez digu ahalegintzen ere uzten.

Ulertzeko gakoak

- Hainbat haur autistak minaren aurrean erreakziorik ez dutela dirudi. Beharbada, ez dute negar egingo eta ez dute kontsolamendua bilatzeko interesik izango min hartzen dutenean.
- Sarritan ez dira arriskuaz jabetzen.
- Adi egon behar da Reena-k min hartzen duenean, beharbada, ezohiko seinaleak egingo ditu, soinu edo hitz jakin bat adibidez.
- Etxeko gela bakoitzean arrisku-zonak identifikatzea, adibidez, tximinia, entxufeak, kantoiak, berogailuak eta abar.

Estrategia erabilgarriak

- Reena-ri, arrisku-egoerak nola saihestu erakustea bidezkoa da. Zerbait arriskutsua ukitzera doanean, eragotzi eta irmotasunez “Ez” esan.
- Helduagoa denean edo nahikoa ulertzen duela uste denean, gune arriskutsuen inguruan, berogailua adibidez, hesiak marraztu lurrean (klarionarekin edo zintarekin). Lerroa gurutzatu ez dezan irakatsi eta ez gurutzatzeagatik saritu, adibidez besarkada emanez.
- Une batean min hartu duela uste baduzu, eta axolagabetasuna erakusten duen arren, min hartu izan balu bezala joka ezazu, kontsolatu eta besarkatu. Kontsolatzeko beste modua bilatu, adibidez, gustukoen duen jostailua elkarrekin besarkatuz, edo haurren alboan eserita, bere besoa laztanduz eta ahots gozoz kantatuz.

Lotsarik ez sentitzen ikasi



Nikesh oso gaizki portatzen da jendea inguruan duenean, eurengana hurbiltzen da eta ukitu egiten ditu. Guztia desegokia gertatzen da.

Ulertzeko gakoak

- Zenbait haur autistak, denbora luzez gainerako haurrak ikusiko ez balituzte bezala jokatzen dute eta bat-batean hurbil daitezke eta aurpegia, ilea edo begiak ukitzen dizute.
- Gonbidatu bat badator eta haurrak hanka laztandu, usaindu edo zurrupatzen badu oso deserosoa izan daiteke.
- Zenbaitetan bitxiak eta arropak erakartzen dute haurra gehien, pertsonak berak baino gehiago.
- Haurrak honelako jokabidea izatea inpersonala gerta daiteke, pertsonak objektuak bailiran tratatzen baititu. Hala ere, jokabide hori hasiera ona da haurren jokabidea hobetzeko.

Estrategia erabilgarriak

- Hasteko, Nikesh hurbiltzea onartzen saiatu eta eskertu, ezohikoa izan arren. Edozein motako hurbilketa, ez hurbiltzea baino hobea da. Pertsonak ukitzeko modu alternati-

boak irakatsi, euren eskua gidatuz eta, gorputzeko beste hainbat zatiren orde, eskua edo masaila laztanduz adibidez. Modu berean, etxeko abere bat (abererik balego) edo anai-arrebak nola ukitu behar dituen irakatsi, eta ekintzaren ondorioz ezti-ezti saritu.

- Lotsatuta edo haserre sentitu beharrean, Nikesh-i zer egin, nola egin, noiz egin eta noiz ez duen egin behar irakatsi. Nahikoa denbora eman asimilatzeko. Denborarekin, besteena era egokiagoan hurbiltzen ikasiko du.
- Gonbidatuak dituzunean bere jokabideaz lotsatzen bazara, gustukoa duen jarduera batekin entretenitu.
- Gonbidatuei azaldu beharko litzaieke Nikesh-ek ez duela oihas izan nahi. Lagungarri izan daiteke, bere errua ez diren zenbait zailtasun dituela edo autista dela alde aurretik azaltzea.
- Nikesh gehiegi hurbiltzen bada, ez zaitez zakarki urrundu, haserre edo errefusa azalduz, poliki-poliki erretiratu besterik ez duzu egin behar.
- Denborarekin zuzena dena egin dezan lortuko duzu. Adibidez esan diezaiokezu: “Nikesh, zoaz eta heldu aitonari eskutik”. Ondo egiten badu ez ahaztu goraiatzan.

Besteengana hurbiltzen lagundu



Christopher nigana hurbiltzen denean beti atzealdetik hurbiltzen da, edo nire belaunen gainean jartzen da, aulki bat izango banintz bezala.

Ulertzeko gakoak

- Haur autistak jendearengana modu arraroan hurbiltzen dira, normalean ez aurrez aurre.
- Hainbati gurasoen bizkarrarekin igurtzea gustatzen zaie, zenbaitetan kamiseta gorakak dutela, arroparen marruskadura euren azalean sentitzeko.
- Gerta daiteke atzetik hurbiltzea eta zure belaunak besarkatzea.
- Zenbait haur pertsonen kontra jartzen dira, pertsonak altzariak balira bezala.

Estrategia erabilgarriak

- Christopher atzetik hurbiltzen dela sentitzen duzunean, bere mugimenduei aurrea hartu eta zure belaunak besarkatzearekin batera, burua biratu, irribarre egin eta agur-

tu. Bitan egitea lortzen duzunean, gorputza poliki-poliki biratu eta bere mailara markatu agurtzeko. Hori egiten duzun bakoitzean aurrez aurreko bistako harremana handitu egiten da.

- Christopher zure belaunen aurka jartzen denean, zure besoekin edo zure belaunen artean pixka bat biratu alde batera eta gero bestera. Lehen esan dugun bezala, zure aurrean ematen duen denbora poliki-poliki handitzen joan.

Aurrez aurre begiratu



Nadeem-ek niri begiratzea ezin dut lortu, ez eta oso haserre nagoenean ere. Inoiz ez dakit zer nahi duen edo nola sentitzen den.

Ulertzeko gakoak

- Haur autistak pertsoneri ez die zuzen-zuzenean begiratzen, alde batera edo sorbalden gainetik.
- Entzuten ari ez direla dirudien arren, nabarmendu daiteke entzuten ari direla, euren izena entzun ondoren buelta ematen ez badute ere.
- Solaskidearen gogo-aldartea zein den inporta ez zaienaren itxura eman dezakete.
- Haur autista askok euren nahia ezagutzera emateko aurpegiarekin edo gorputzaren beste zati batekin ez dute keinurik egiten.

Estrategia erabilgarriak

- Nadeem-ekin harremanak ahal den modu guztietara egin behar dira, beti bista, entzumena eta ukimena erabiliz.
- Haurrak zuri begiratzea nahi baduzu, bere ikusmen-angeluan kokatu eta “Nadeem, begira hona” esaiozu.
- Erabilgarria izan daiteke masailak leun-leun ukitzea eta bere izena esaten duzun birtartean bera zuri begira jartzea (haurrak uzten badizu).
- Hatzak (zureak zein bereak) bezalako gorputzeko zatiak seinالاتu edo ukitu eta izenda ditzan animatu. Jokoetan parte hartu eta gorputzaren zatiak aipatzen dituzten kanta kantatu.

- Bere eskuak zure aurpegian edo eztarrian ipini, soinuak emititzen, neurritz gaineko mugimenduak egiten dituzunean edo aurpegi barregarriak jartzen dituzunean.
- Harreman fisiko, bisual eta entzunezkoa sustatzeko jolasetan parte hartu. Bainuaren unea oso egokia da horretarako. Soinu eta keinu arraroak eta barregarriak egin ukitzen zaituen bitartean; adibidez, ezpainak ukitzen dizkizunean ahoa azkar ireki eta itxi. *Zuk* zerbait egitea lor dezakeela jabetzen denean, jarduera errepikatu nahiko du beharbada.
- Gorputzeko zatiak seinalatuz “Nadeem-en sudurra, Nadeem-en begiak...” esaten duzun bitartean nola izena duen eta bere burua ezagutzen erakutsi.
- Nadeem-i arreta jar dezan eta, denborarekin, aurpegira begira zaitzan animatu. Bere mailan jarri arte belaunikatu edo bere aurrean eseri, ez bere alboan, bere ikusmen-angeluan baizik, begiratzea erabakiko balu zu bertan topatzeko. Harreman bisualik ez itxaron arren, halakorik gertatuko balitz modu positiboan erreakzionatu, nahiz eta noizean behin gertatu. Interesatzen zaion edo gustukoa duen objektu bat hartu eta zure aurpegiaren ondoan heldu, begietatik hurbil, eta ondoko hau esan: “Begira, Nadeem”.

Bista bidezko harremana hobetu



Sam-ek modu egokian begira gaitzan ezin dugu lortu.

Ulertzeko gakoak

- Haur autista batzuek inoiz begietara begiratzen ez duten arren, normalki haur hauek harreman bisuala ezartzen dute, maizegi ez bada ere.
- Begietara zuzenean begiratu gabe begiratu azkarra egin dezakete eta zaila da begirada mantentzea.
- Beraiekin dagoen pertsonaren aurpegira edo begietara begiratu beharrean, seguru aski honen arropa, ile edo osagarrietara begiratuko dute.
- Bere begietara begiratzen duzunean, zenbaitetan, behera begiratzen dute, begiak eskuarekin estaltzen dituzte edo beste aldera begiratzen dute.
- Hainbat, pertsoneri zuzen-zuzen begira geratzen dira, espresiorik gabe, batez ere arrotzak edo gonbidatuak badira.

- Zenbaitetan pertsonak aztertzen dituzte, asko hurbilduz eta deseroso sentiaraziz.

Estrategia erabilgarriak

- Belarritako edo koilare batekin Sam-en interesa erakarri duzulakoan bazaude, interes hori bera zu pertsona zarela ohartzeko erabiltzen saiatu. Bistako erlazioa ezartzen saiatu burua mugituz bere begiradarekin topo egiteko, ahal baduzu.
- Jar ezazu zure buruan txapela edo objektu xelebrea eta objektu horrekin begiak estali; ondoren irribarre eginez begira ezazu.
- Xaboi-burbuilak egin eta airean daudenean eta desagertu arte begira dezan saiatu. Burbuilak altuera baxuan egin, bere aurrean zaudenean, bere aurpegiaren inguruan flotatzen ikusten dituen bitartean harreman bisuala ezar dezazun.
- Sam-ek objektu bat begiratzen duenean, objektuari buruz berekin hitz egin bere ikusmen-angeluan. Sam begiratzen ari zaizula nabarmentzen baduzu, irribarrea egin, agurtu ezazu eta elkarrizketa hasten saia zaitez. Ondoren, naturaltasunez itzuli eta beste behingo bere begirada erakartzen saiatu.
- Sam gehiegi hurbiltzen denean, bat-batean ez urruntzea komeni da. Agurtu eta irribarre egiozu burua itzuli eta zugandik leun-leun urruntzen duzun bitartean.
- Berekin jolasten duzunean, harreman bisuala ezar dezan animatu. Ondoren, harremana moztu eta ea begiratzen duen itxaron. Hala egiten badu, estrategiarekin aurrera jarraitzeko seinale moduan hartu. Ahal baduzu, txandaka jarduteko jolas moduan bihurtu. (Ikus *Gizarte jokoak* - 38. or.)
- Sam-ek adi-adi begiratzen badizu, ez lotsatu, baina zuk berari ez iezaiozu horrela begiratu. Labur begiratu eta beste aldera biratu, aurrerago berriz modu naturalagotan begiratzeko.
- Harrapaketako jokoen atzekoak erabili. Irten aurretik esan “zuen tokietara, prest” eta ondoren eskuarekin seinalatuz “ja”. Saia zaitez Sam-ek begira dezan, eta, beharbada, Sam-ek begiratuko du, lasterka hasi aurretik begiratzen diozula egiaztatzeko.
- Bere esku, beso edo sorbaldan kolpe tinko bat erabilgarri izan daiteke bere arreta erakartzeko. Ezkutatu zerbait atzealdean edo eskuan eta ondoren erakutsi gordeta duzuna.
- Sam txantxak eta umorea ulertzen hasten bada, bere gauzak bi kutxatan gorde daiteske, adibidez bat jostailuentzat eta bestea eraikuntza-piezatarako. Gordetzean, ku-

txaz nahastuko bazina bezala egin eta esan “ez” buruaren mugimendu batekin laguntzen duzula. Gauza bera egin dezan eta “bai” edo “ez” esan diezaioten itxarotera animatu. Objektu bakoitza kutxa egokian ipini aurretik onarpen bila begira dezan itxaron.

Besteei ulertzeko gakoak bilatu



David ez da nire sentimenduez jabetzen.

Ulertzeko gakoak

- Hainbat haur autistak ez dute keinuak eta espresioak interpretatzen lortzen, eta gogo-aldarteak erakustean erreakzio okerrak izan ditzakete, adibidez uste dute pertsona haserre dagoela errealitatea aurkako denean.
- Ohiko arazo bat da inguruan dituen haurrak bortitzak eta mehatxatzaileak direla ustea, besterik gabe alde batetik bestera korrika dabiltzanean.
- Sarritan haur autistek keinuak eta seinaleak ez dituzte zuzen erabiltzen, eta esanahirik gabeko imintzio edo keinu bitxiak egiten dituzte, edo arrazoi nabarmenik gabe barre edo garrasi egiten dute.

Estrategia erabilgarriak

- David-ekin hitz egin, inguruko jendea egiten ari dena eta ondoren gertatuko dena azaltzeko. Davidek aurreikusten ez duen moduan jendeak jokutzen edo janzten duen egoera ezezagunei aurre egiteko prestatu.
- Esan nahi duzuna beharbada, keinuak erabiliz azaldu beharko diozu, adibidez, ezjakintasuna edo interes falta erakusteko sorbaldak altxatu ditzakezu edo ezpainen bidez ezadostasuna erakutsi. Barre, negar edo haserretzeak zer esan nahi duen edo nola sentitzen zaren esaiozu Davidi.
- Berekin batera liburuak edo marrazkiak begiratu aurpegi alaiak, haserre-keinuk, eta abar identifikatzeko.
- Aldizkarietako aurpegiak moztu aurpegi alaiak osatutako murala egiteko eta sukaldeko horman itsatsi. Ikus 2. unitatea - *Keinuak ulertu* - 50. or.



Charles-ek inoiz ez duela ezer entzuten dirudi. Bere izenez deitzen diotenean ez da biratzen, eta hitz egiten zaionean ez dirudi entzuten duenik.



Victor-ek intentsitate handiko soinuak entzuten ez dituela dirudien arren, gozokiaren bilgarriaren soinua entzuteko gai da. Zenbaitetan beldurtu egiten da soinu arin batekin.

Ulertzeko gakoak

- Hainbat haur autista asko beldurtzen dira soinu jakin batzuk entzuten dituztenean, soinu horiek arriskutsuak ez izan arren.
- Beste hainbatek, egunaren arabera modu diferentean erreakzionatzen dute. Adibidez, euren izena edo ahots ezaguna entzuten dutenean, zenbaitetan erantzuteko gai dira eta bestetan ez.
- Gehienei musika entzutea gustatzen zaie, batez ere erritmo markatuko doinuak badira.
- Zenbaitetan, haur autistek ikusmena eta entzumena nahasten dute. Horrenbestez, begiak ixten dituzte soinu bat ez entzuteko eta belarriak itxi zerbait ikusi nahi ez dutenean.

Estrategia erabilgarriak

- Euren arreta eskuratzeko seinaleak erabili, adibidez, bere belarria ukitu zerbait entzun dezan nahi duzunean edo masaila begira dezan nahi duzunean.
- Berekin hitz egiten hastean, bere izenez deitu eta gai den arreta guztia eskaintzen ari dela ziur egon arte itxaron. Ahal baduzu, “entzun Charles” bezalako esaldi bera erabili beti bere arreta erakartzeko.
- Bigarren mailako soinuak eta distrakzioak saihesten saiatu, berekin lanean edo jolasten duzunean.
- Eguneroko zereginak burutzen dituzunean, bere alboan leun-leun hitz egiten edo abesten saiatu. Familiarteko abestiak eta esaera herrikoiak izan daitezen ahalegindu, batzuek eguneko uneekin lotutakoak (jateko, bainatzeko edo oheratzeko garaia) eta besteak egunean zehar errepikatzen direnak.

- Intentsitate eta tonu diferenteko soinuen erregistro zabala ezagutu dezan ahalegindu.
- Doinu edo erritmo errazak egiteko koilarak, estalkiak edo kartoizko kutxa eta makila bat bezalako etzeko tresnak eta objektuak erabili. Parte har dezan animatu. Melodian hutsuneak utzi berak bete ditzan eta berak parte har zezan nahiko bazenu bezala jokatu. Horrela jokatzeko ez badu, hutsuneak uzten jarraitu, denborarekin, jolasten hasia onar dezan. Anai-arrebak berarekin modu berean joka dezaten bultzatu.
- Berarekin aritzeko laguntza gisa musika eta mugimendua erabili. Berarekin kantatu edo doinu ezaguneko osatutako kantak asmatu burutzen ari zireten ekintzak kontatzeko. Saltoak egin ditzan eta musikaren erritmora mugitu dadin animatu. Besotan hartu eta berarekin dantzatu edo airean mugitu.
- Errimak eta abestiak erabili, errepikatzen den hitza edo esaldia noiz helduko den suspentsearekin eraginez. Normala baino geldialdi luzeagoa egin, eta hitz egokia esan dezan itxaron.
- Mugitu gabe zure alboan esertzerako gonbidatu zinta edo istorio bat entzun eta ikustera. Denbora-epe laburrekin hasi eta poliki-poliki luzatzen joan. Beharbada, bere kuxin berezian esertzea gustatuko zaio.
- Soinu batek egonezina eragiten badio, zure esku dagoena egin kentzeko, edo beste la kontsola ezazu. Behar izanez gero, beste leku batera eraman ezazu soinua entzun ez dezan. Xurgatzailearen kasuan bezala, kontrolatu ezin den soinua bada, piztu aurretik abisatu. Soinua jasagarria izan dakion lortzeko, lehendabizi pertsona baten laguntzarekin alboko gela batera eraman eta ondoren soinua hurbildu. Bakarrik dagoenean onartzeko, poliki-poliki egin behar da. Grabatzailea erabilgarria izan daiteke, gustukoa ez duen soinuaren intentsitate baxuagoa lortzeko, eta era horretara erazago onartzeko.
- Grabagailuarekin soinuaren bolumena kontrolatzen duzun bitartean, “altuegi” edo “bolumena jaitsi” bezalako esaldiak esan. Haurra lengoia erabiltzeko gai bada eta zure esaldiak imitatzen hasten bada, etengabe animatu. Beharbada, egun batean bere kabuz esango du, denbora luzea eman arren.

INTERES PARTEKATUAK

Hasi aurretik

- Beti kontuan hartu helburua, haurraren arreta eta interes partekatutako sortzeko lan egitea dela, eta ez bakarrik biok jolasten ari zireten gauzekiko interesa garatzea.

- Haur autista asko ez dira jabetzen, jendeak euren jardueretik interesa duela. Beharbada, ez dira ahaleginduko zuri gauzak erakusten edo zure arreta bereganatzen.
- Hainbat haurrek objektuak eta marrazkiak mekanikoki seinalatu edo izendatzen dituzte inor begiratzen edo entzuten ez egon arren. Haurrari irakatsi behar zaio, jardueran besteei interesatzeko gauzak adierazten ditugula.

Begira!



James-ek niri erakusteko inoiz ez du ezer ekarri.

Ulertzeko gakoak

- Beste haurrek ez bezala, autistak ez dira, seinalatuz eta partekatuz eurei interesatzen zaizkien gauzetara beste pertsonak erakartzen ahalegintzen. Ez dirudi besteak interesatuta egon daitezkeela ohartzen direnik.
- Ez dute ulertzen interesak partekatzeko modua. Norbait zerbaiti begira dagoenean, autistek ez dute begiratzen, ez eta seinalatu eta “begira!” esaten zaienean ere.
- Euren interesak begien bistakora eta hurbilera mugatzen dira, eta ez dute nabaritzen besteak ere interesatuta egon daitezkeenik.

Estrategia erabilgarriak

- Interesgarriak iruditzen zaizkizun gauzak irakasten jarraitu, arreta txikia lortzen bazu ere. Haurrari arreta eskaini eta egiten ari denari buruzko iruzkinak egin.
- Goratarreak eta arreta zuzenean erlazionatu, bai eta une bakoitzean egiten ari denarako afektua erakutsi ere.
- Zu bertan izatea gehiago nabarmendu eta interesgarriagoa egin. Zure ustez interesatuko zaizkion jarduerak egin, beregandik hurbil egin bere arreta erakartzeko.
- Paseatzera zoaztenean, gauzak erakutsi, bereziki uki daitezkeen gauzak badira. Aldi bakoitzean gauza bat irakatsi, eta ikusten ari zaretenari buruz argi eta erraz hitz egin. Adierazi nahi duzuna ulertzen lagundu keinu eta mugimenduen bidez.

- James zure aurrean jostailu batekin badago, zuri erakusten balego bezala egin. Hartu eta begiratu, interesa erakutsi eta itzuli aurretik jostailuari buruzko iruzkinak egin. Adi egon, James jostailuaren bidez mezu bat bidaltzen saiatzen ari dela ohartzeko.
- James-ek zerbaitekiko interesa duela antzematen baduzu, bere begirada jarraitu eta zuk ere interes hori erakutsi. Zerbait partekatzen ari zaretela senti dezan ahalegindu.
- Liburuak erabili, batez ere gorde daitezkeen elementu mugikorak dituztenak, eta libururako duzun interesa argi eta garbi erakutsi. Ikusten ari zaretenari buruz hitz egin eta galderak egin: “Spot non gorde da?” eta abar.
- Poliki-poliki gauzak erakutsi diezazun ahalegindu. Ondoko esaldiak bezalakoak esan: “Amak hartz txikia ikusi nahi du” edo “Ilargia begiratuko dugu”. Hasieran nahiko erabilgarria da bere eskua leun-leun hartzea eta berak zurea hartzen uztea. Pixkanaka gainbegiratzea murriztu eta bere kabuz egin dezan ahalegindu. (Ikus 2. unitatea - *Komunikazioa* - 43. or.).
- Prest dagoenean, James-ek, egiten aritu zaretena hirugarren pertsona bati erakuts diezaion ahalegindu.
- Puzzlea bukatzen edo marrazki bat egiten duenean, inguruko jendeari erakuts diezaion anima ezazu.

Gauzak elkarrekin egin



Tom-ek jostailu eta jokoekiko interes pixka bat erakusten du eta inguruan jendea egon dadin onartzen du, beti ere eragotzi edo parte hartzen saiatzen ez badira.

Ulertzeko gakoak

- Zenbait haur autistak une batez objektuak erakusten dizkiete besteei edo euren ize-
na esanez erakusten dituzte; hala ere, hori ez dute haien arreta edo interesa jasotze-
ko helburuarekin egiten.
- Hainbatek, nahi dituzten gauzak seinalatzen dituzte edo eskua hartzen dizute euren
alde gauzak egin ditzazun; hala ere ez dira gai euren eskuak erabiliz bakarrik egiteko.
- Haur autista asko trebeak dira jokorako, baina jokia eurek hasten dutenean bakarrik.
Ez dituzte besteen aginduak jarraitzen, eta ez dute beste pertsona baten iradokizunik
onartzen.

Estrategia erabilgarriak

- Tom-i gauzak ematen irakatsi. Bere besoa heldu eta bere eskua zugana eraman. Objektua heldu, poza erakutsi eta berak eman izan balizu bezala jokatu. Gero berari itzuli. Ondoren, interesgarria iruditzen zaizun zerbait emaiozu, jarraian eskatu eta bere eskuari lagundu itzultzen dizun bitartean.
- Zuen artean objektuak banatzea eragingo duten jokoetan parte hartu; aurrerago, zirkulua beste haurrengana zabaldu.
- Tom-i bere zaletasunez galdetu eta horri buruz hitz egin.
- Bere jokoei buruzko iruzkin alaiak egin, edota gelako beste muturretik joko horiek eten.
- Lasterketa-jokoetan parte hartu aurrea hartzeko, “zuen tokietara, prest, ja!” poliki esan eta “ja” esateko etena luzatu.
- Tom mugitzen dela edo soinuak egiten dituela ikusten duzunean, imitatu eta soinu edo mugimendu horiek esanahiren bat balute bezala jardun. Jokoa bera imitatzen saiatzen oinarritu, baina kontuz ibili jokoa isekan amaitu ez dadin. Etenak egin bere erreakzioa itxaroten eta berriz hasi. Hasieran betetzen ez baditu ere, espazio hutsak utzi, betetzen ote dituen ikusteko. Imitazio-eredu bat zehaztu ondoren, zuk egindako soinuak edo mugimenduak sartzen saia zaitezke, berak zureak imita ditzan. (Ikus 2. *unitatea - Soinuak egin - 46. or.*).
- Tom, berak nahi duena erakuts diezazun animatu. Berak nahi duen tokira eraman zaitzan eta helburuak lortzeko zure eskua har dezan utzi. Zenbaitetan, ezer ulertuko ez bazenu bezala jokatu. Bere eskua hartu eta toki egokira seinala dezan ahalegindu. Hasieran objektu errealak erabili behar dituzu eta seinala edo eskura ditzan animatu behar duzu. Aurrerago, berari gustatzen zaizkion eguneroko objektuen argazkiak edo marrazkiak erabil ditzakezu. Aldi berean hainbat marrazki erakutsi eta bat aukera dezan eta zer esan nahi duen erakuts diezazun ahalegindu behar duzu. Pixka bat zailagoa egin dezakezu, berak nahi duena eman aurretik marrazki egokia aurkeztu dezan behartuz.
- Tom-ek zuk bere ondoan jolastea onartzen duenean, elementu berriak sartu. Adibidez, eraikuntza-blokeak lerrokatzera jolasten ari bazarete, bat-batean kantoi bat sar dezakezu edo lerroa jarraitu beharrean besteen gainean doan bat ezar dezakezu. Seguru aski hasieran ez du onartuko, baina jarrera horrekin jarraitzen baduzu, azkenean onartuko du. Jokoaren eskema aldatzean begiratzen bazaitu, gauzak lehen zeu-


den modura itzuli eta irribarrea eginez begira ezazu, bere begiradak zugan eragina izan duela erakusteko. Bere ohituretan beste hainbat aldaketa egin, baina bere kontura isekarik egin gabe, baldin eta txantxa dibertigarria iruditzen ez bazaio.

GIZARTE-JOKOA


Hasi aurretik

- Orain arte haur autistaren enpatia hobetzeko moduari, gizarte-ohiturak ulertzen laguntzeko moduari eta bere interesak partekatzerara animatzeko moduari buruz hitz egin dugu. Ondoren, elkarrekintzak bultzatzeko moduan eta besteekin jolastearen gozamenaren esperimendatuz partekatze gaitasunean oinarrituko gara, gauzekin jolasteari kontrajarriz.
- Zure semearekin jolas- eta lan-erlazioa garatzen ahalegindu. Arreta eskainiko diozula ziur dagoen eguneko une eta toki jakinak zehaztu.

Nirekin jolastu



Sarah-k inoiz ez du taldean aritzeko haur-jolasekiko interesik erakutsi.



Hannah inoiz ez da ahalegintzen berekin jolas dezadan eta, aritzen naizenean eskuak kentzen dizkit edo alde egiten du. Ez zaió ezer axola.

Ulertzeko gakoak

- Haur autista askok ez dute zuzen erantzuten gurasoak eurekin jolasten saiatzen direnean.
- Jarrera pasiboa erakuts dezakete edo, aitzitik, buelta eman, alde egin edo kezkatu egin daitezke.
- Euren inguruan etxeko lanekin oso lanpetuta dagoen norbait egon arren, eurek ez dute interesik erakusten.
- Askok ez dute gurasoen edo beste edozein pertsonaren arretarik bilatzen.


Estrategia erabilgarriak

- Jolas lasaiekin hasi. Sarah lasaitzeko eta jarduerarekiko interesa eragiteko moduan antolatu gauzak. Hasteko, bere alboan eseri eta ikusi. Hori onartzen duenean, bere ondoan jolasten has zaitezke eta bere jolasean laburki parte har dezakezu. Bere isolatzea murrizten ahalegintzen jarraitu. Sarah haserretu edo estresatzen bada hobe da bakarrik uztea eta aurrerago ahalegintzea.
- Sarah-ri denbora eman animazio bidezko joko guztiak beregana ditzan. Oraingoz erantzuten ez badu ere, azkenean entzungo du. kontaktu fisikoko joko asko erabili, zure magalean eseri eta bote egin dezan eraginez adibidez.
- Sarah zure magalean esertzea eragingo duten jokoak erabili. Hasteko, behar izanez gero, zuri bizkarra emanez eseri ezazu. Ondoren jolasten jarrai dezakezu, debora-tarte laburretan, haurra zuri begira dagoela eserita, baina ez hurbilegi. Ez kezkatu hasieran laguntzen edo erlazio bisualik ez badu. Poliki-poliki jarduera horretan emandako denbora, hurbiltasun fisikoa eta harreman bisuala handitu. Imitatu eta jokatzerara animatu. Poliki-poliki, jokoak hasteko eta amaitzeko edo jokoak aldatzeko duen denbora handitu.
- Zure eskuekin mugimenduak sortzen lagundu. Poliki-poliki laguntza hori murriztu eta bere kabuz mugi dadin utzi.
- Zureak bere eskuen gainean jarrita, mugimendu-ekintzak sartu, adibidez, bota eta bultzatu, estutu, zipriztindu, biribildu, okertu, iltzatu, biratu eta kolpatu. Jostailu egokiak erabili.
- Hondarrarekin jolastu, tontor bat hartu eta bere eskuen gainera bota; berak zurekin gauza bera egin dezan ahalegindu zaitez. Antzeko jokoak egin daitezke bainerako urarekin.
- Lurrean esertzea eta musika entzutea eskatzen duten jokoak praktikatu. Hasieran Sarah zure hanken artean bizkarra emanez eseri. Mugi dadin eta erritmoa txaloak emanez jarrai dezan saiatu. Ondoren, zuri begira jar ezazu eta mugitzen jarrai dezan ahalegindu. Poliki-poliki, jokoan zehar aurrez aurre ematen duzuen denbora luzatzen joan.
- Musika-tresna edo jostailu zaratsua edo mugi daitekeena hartu eta aurpegira hurbildu martxan jarritz. Ondoren, isildu edo geratu, haurraren ikusmen-angeluan ezarri eta galdetu: “berriz egingo al dut?”. Soinua edo mugimendua errepikatu eta, geratzen denean, galdera bera egin, bere erantzuna edo seinalearen zain.

- Lasterka egitean, harrapatzean eta itzulipurdika ibiltzean oinarritutako jokoak erabilgarri izan daitezke. Adi egoten saiatzen da eta harreman bisuala sustatzen du. Honelako joko-motetan etenaldi luzeak egin, aurea hartzea eman dadin. Jokoarekin aurrera jarraitu nahi ote duen edozein modura adieraz diezazun itxaron. Bere atzetik ibiltzera eta kilimak egitera jolastu, eta berriz egin aurretik erlazio bisuala eman dadin itxaron. Sorbaldan eraman eta hasi edo gelditzeko agindua berak eman dezan ahalegindu. Antzeko jokoetan ahalegindu “gehiegikeriarik” ez egiten, Sarah neurriz gain asalda daiteke eta.

Ikus 3. unitatea - Obsesioak gizarte-joko bihurtu - 66. or.

Txandak egin



Ez dut Barbarak nirekin jolas dezan lortzen. Inoiz imitatzen ez didala jabetu naiz.

Ulertzeko gakoak

- Haur autistek ez dituzte mugimenduak, ekintzak, adierazpenak edo soinuak imitatzen. Gurasoek hitz egiten dietenean ere ez dute erantzuten.
- Nahiko zaila izan daiteke haur autista bati jokoan nola parte hartu erakustea, batez ere, jokoak txanda itxaron beharra eskatzen badu eta “eman eta jaso” ereduari jarraitzen badio.

Estrategia erabilgarriak

- Haren ile, beso edo aurpegiari haizea eman. Zure aurpegia azter dezan lortu eta, horren truke, soinuak egin edo ahoa mugitu. Saia zaitetz berak zu “aktiba” zaitzan, hau da, ukitzen zaituenean mugi zaitetz eta ukitzen ez zaituenean berriz geratu.
- Jokoetan aurea hartu, adibidez, lasterketetan “zuen tokietara, prest, ja!” esanez. Aurea hartzea azpimarratzen ahalegindu.
- Zenbait jokoren erritmoa berak kontrola dezan animatu, adibidez zabuan.
- Gustukoen duen jokoa, musika-tresna edo jostailua aukera dezan utzi. Hasieran aukerak jarduera batera edo bitara mugatzea komeni da eta, prest dagoenean, aukera gehiago eman. Hasieran, joko bat aukeratzen duenean, zuzenean har dezan utzi; au-

rrerago ordea , lehendabizi zein nahi duen esan dezan ahalegindu zaitetz. Hartu bere eskuak eta bere mugimenduak gidatu.

- Aisiako jarduerekin bezala, nahi duena jan eta janzteko aukera eman.
- Zintzilikatzen diren belarritako luzeak janzte badituzu, arreta eskaini diezaien ahalegindu zaitetz. Belarritakoak mugiarazi eta begira dezan esaiozu. Jarraitu aurretik, eten laburra egin. Noizean behin bere ikuspen-angeluan kokatu, eta ahal baduzu, harreman bisuala ezartzen ahalegindu zaitetz, ondoren belarritakoak mugitzen jarraitu. Hori guztia egin ondoren, denbora batez geldirik geratu, Barbara zuri begira egon baitaiteke. Hala egiten badu ondoko galdera egin: “errepikatzea nahi al duzu?”
- Elkarrekintza-jokoak planteatu “joan-etorrikoak”, adibidez, zabua, pilota batetik bestea pasatzea edo kulunkak (kulunkatzeko bere aurrean jar zaitetz). Gauzak erakutsi eta eskaini. Txandakako jokoetan parte hartu. Gutxienez bi lagun behar dituzten jokoak oso erabilgarriak dira beste hurrekin harremanak izan ditzan animatzeko. Era berean erabilgarriak dira etxeko eguneroko lanak, adibidez, mahai bat mugitzen lagundu zaitzan, objekturen bat heldu dezan edo eskorga bat bultzatzeko txandak egitea.

2. UNITATEA: KOMUNIKAZIOA

Sarrera

Orokorrean, haurrak jaiotzen direnean komunikatzeko irrikatan daude. Ikusi eta entzundako guztia jasotzeko eta ulertzen saiatzeko “programatuta” daude. Inguruko jende eta aurpegiekiko interes handia erakusten dute, eta berehala ikasten dute parte hartzen eta txandak egiten, bai eta hitz egin edo soinuak igorri aurretik ere, elkarrizketa balitz bezala.

Haur autistek, beharbada, ez dute komunikatzeko hainbeste gogo. Beharbada, ez dade beste haurtxoek naturalki ikasten dutena jasotzeko prestatuta, eta horrenbestez ez dute lengoaiara egokitzeko aukera bera. Eurei, inguruan gertatzen dena ulertzea oso zaila egiten zaie eta hitzek esanahi gutxi eta nahasia dute. Beharbada, ez dira gai ikusten dutena eta esaten zaiena erlazionatzeko. Lengoia haurtzaroan hasten da garatzen, haurtxoek entzuten dutena eta euren inguruan gertatzen dena erlazionatzen dutenean. Norbaitek atea irekitzen duenean, sehaskatik aterako dituela aurreikusten ikas dezakete adibidez. Hasieran, ohitura hauekin batera ematen den lengoaiak ohitura horren barne bakarrik du zentzua. Aurrerago, objektuek eta ekintzek egoera batetik bestera aldatzen ez diren etiketak dituztela ulertzen dutenean, euren arreta erakartzen duten gauzen izenak ikasten hasten dira. Seinatu eta izendatzeko helduen eredu jarraitzen dute, eta behar duten hitza galdetzeko euren kabuz seinalatzen ikasten dute.

Haur autistek, hitzak ulertzeko arazoak izateaz gain oso zaila egiten zaie aurpegiko keinuek eta adierazpenek eragindako mezu ez-hitzezkoak jasotzen. Gu guztiontzako mezu inplizitu hauek oso garrantzitsuak dira mezu osoa ulertzen laguntzeko. Lengoia ikasteko

arazo espezifikokoak dituzten hurrei esan nahi dieguna ulertzeko laguntza ematea oso garrantzitsua da. Ezin dugu ahaztu haur autistek errazago ulertzen dituztela ikusten dituzten gauzak entzuten dituztenak baino. Marrazkiak, sinboloak, argazkiak eta zeinuak, erabiltzeko elementu positiboak dira.

Helduen ustez soinuen garapena ahozko lengoia garatzeko oinarria da. Egia da haurtxoak zizakaduratik hitzetara igarotzen direla, eta zizakatzea lengoaiaren garapenerako fase garrantzitsua dela, hurrei aurrerago beharko dituzten mugimenduak eta soinuak praktikatzeko aukera emango baitie.

Soinuak emitituz gozaten ikasteak bultza ditzake haur autistak esanahidun soinuak erabiltzera; hala ere haurrek ezin dute hitzik eratu eta komunikatzen ikasi, soinuak egiten bakarrik irakasten bazaie. Lengoaiaren garapenaren zati garrantzitsuena *mezu partekatuak erabiltzen ikastea* da. Horrek, beste hainbat pertsonarekin komunikatzeko *sistema* (ahozkoa edo ez-ahozkoa) erabiltzen ikastea esan nahi du.

Komunikatzeko arazorik ez duten haurrek komunikazioaren arauak erraz ikasten dituzte, hitzak ikasteko prozesuan edo lehenago. Aitzitik, haur autistek zailtasun handiak dituzte arau hauek ulertzeko. Lengoaian oso trebe direnek ere, elkarrizketak erraz izateko edo lengoia beste haurrek erabiltzen duten aberastasunez erabiltzeko ez dira gai.

Hasi aurretik

- Helburu bat: haur autista txikienei, euren ezpain, mingain, hortz, eta abarrak egin ditzaketen soinuak aztertuz gozaten laguntzea. Garrantzitsua da soinu bidezko joko-mota hau *dibertigarria* izatea.
- Haurrari, afaria, bainua edo oheratzea bezalako eguneroko ohituren inguruan entzuten duen lengoia ulertzeko aukera eman. Horiek, eguneko une egokiak dira gertatzen denaz hitz egiteko, hasieran haurrak erantzuten ez badu ere.
- Haurrak, soinuak erabiliz txandak egiteko jokoetan parte har dezan nahi da. Egia esan, *hitz egiteko* eta lengoaiaren soinuak erabiltzeko modu praktikoa da.
- Zenbait haur autistak entzuten dituzten hitzak imitatzen eta euren inguruko gauzak aipatzen badituzte ere, hitzen esanahiaz gozatzea falta da.
- Haurrak hitzak erabiltzera bultzatu nahi dela gogoratu behar da. Ez da kezkatu behar hasieran ez badira behar bezala erabiltzen.

- Haur autistek hitz egiten ikasteko ahaleginak egiten dituztenean, hitz egiteko *edo-zein* modu positibotzat jo behar da.
- Haurrek hitz berri asko ikas dezaten nahi da, baina batez ere *besteekin hitz egiteko* erabil ditzaten.
- Haur autista ugariak hitzak “bildu” besterik ez dute egiten; guk oreka lortu behar dugu, hitz berriak ikasteaz batera, hitz horiek hobeto erabiltzen irakatsiz.
- Haurrek hitz egiteko arrazoi bat behar dute, gauzak komunikatzeko nahia eta erabili nahi dituzten hitzak ezagutu. Besteek esaten dutena errepikatzea, hitz egiten ikasteko modu bat da. Izan ere, haur askok ikasketa aurreratuagoetara heldu aurretik errepikatze fasea pasatzen dute.
- Haurrak besteak imitatzen utz dezan ahalegindu *aurretik*, komunikatzeko edo mintzamenari buruz ikasteko beste moduak dituela ziurtatzea garrantzitsua da.
- Hasteko modu egokiena, haur autistari beretzat garrantzitsuak diren gauzei buruz komunikatzen irakastea da. Horregatik haurrei, nahi dutena eskatzen irakasten hasten gara.
- Haur autista askok, lehen aldian egin zuten modu berean gauzak egiten edo esaten jarraitzen dute.
- Ikasteko lehen etapetan mezuak transmititzeko modua zaindu. Haur autistak egiteko edo esateko moduan itsutu egiten dira, eta aurrerago zerbait esateko modu berriak irakasteak frustrazioa edo ezinegona eragin diezaieke.
- Mezuak ulertzen ikastea, haurraren garapenaren fase garrantzitsuenetako bat da.
- Zenbaitetan, ahotsaren tonua, keinuak eta mugimenduak bezalako elementu ez-ahozkoen bidez benetakoak ez diren mezuak jasotzen ari garela uste dugu. Heldu askok pentsa dezakete haur bat aspertuta dagoela edo oihes dela, horrela ez deanean.
- Haur autista txiki bati ahozko lengoai ulertu eta erabiltzen irakastea jarduera errepikakor eta luzea izan daiteke. “Elkarrekintza eta irudimenari buruzko unitateen” barneko jarduera guztiak, ahal izanez gero, ahozko lengoaiaz lagundu beharko lirarteke. Hala ere, garrantzitsua da gehiegi ez hitz egitea. Beharbada, haurraren arreta erakartzeko jarduerak isilik egin behar dira, keinuak eta aurpegiaren espresioa areagotuz. Bereziki garrantzitsua da, geldialdi egokien bidez ikusmina sortzea haurrari elkarrekintza *hastera* bultzatzeko.



Sarah-k dagoeneko ez du zezeltzen, lehen egiten zuen arren. Zenbaitetan soinuak egiten ditu, baina ez dirudi hitzak direnik.

Ulertzeko gakoak

- Haur autista txikienek zizakatu egiten dute; hala ere zizakatze hori aurrerago erabat desagertu edo ahozko lengoaiaren soinu ez bihurtzea gerta daiteke.
- Hainbat haurrek, euren hizkuntzakoak ez diren soinuak emititzen dituzte. Zenbaitek denbora luzez zizakatu egiten dute. Batzuetan euren buruarekin hitz egiten dute baina ez beste pertsona batekin egingo luketen moduan eta are gutxiago inor imitatze-ko asmoz.

Estrategia erabilgarriak

- Airean euren biriketarik ahoan barrena ateratzea lortzeko, putz egin (globo edo oihalzatiak) edo burbuilak egin behar diren jokoak erabili. Era berean haize-tresnak edo –ehogailuak erabil daitezke. Sarah zu imitatzeko prestatuta ez badago, gutxienez zu ikus zaitzan ahalegindu. Ohar zaituzte zuk begiratzen ez diozunean jarduerak hauetako bat probatzen ote duen.
- Bere ezpainen mugimendua sustatu. Ispiluari begira edo zuri begira zure magalean eserita gustura sentitzen bada, bere begi eta eskuekin zure ezpainak eta aurpegia azter ditzan anima ezazu. Aurpegi bitxiak jarri, ezpainak mugitu, mingaina atera eta sartu, eta imitatzen ote dizun begiratu.
- Sarah-ri mingainaren punta erabiltzera animatzeko, miazkatzea eskatzen duten jarduerak jarri martxan, adibidez piruleta edo irudiak egiteko koladun paperak (ziguiluak adibidez).
- Bere ahotsa erabiltzera bultzatzeko, ahotsarekin martxan jarriko diren jostailuak erabili (jostailu-denda espezializatutan aurki daitezke). Sarritan kanta ezazu, eta bertan parte hartu nahi ote duen ikusteko denbora eman. Bere soinu eta zure zizakadurak grabatu, imita dezan animatzeko.
- Beharbada, tonu altuagoa edo baxuagoa, edo soinu altuagoak, baxuagoak edo luzeagoak erabili beharko dituzu, Sarah egiten ari zarenarekin interesatzeko.

- Imitatzera edo elkarrizketetan parte hartzera animatu. Hasi, egiten duen edozein soinu ahalik eta modurik antzekoenean errepikatuz. Egin ezazu, danborra jotzen edo mahaian kolpeak ematen ari bada ere. Etena egin eta berari errepikatzeko aukera eman, txandak ezartzen saiatu. Noizean behin soinu berri bat, zaplada bat, edo erritmo diferentea saiatu, imitatzen ote dizun ikusteko.
- Sarah-k zizakatzen badu, bere soinuak imitatu eta berriekin saiatu, errepikatzen ote dituen ikusteko. Begiratzen bazaitu etenaldia egin eta irribarre egiozu. Probatu, berak erabilitako soinuetatik diferente direnekin edo ia berberekin. Adibidez, “b” eta “p” soinuak antzekoak dira, aitzitik “p” eta “s” erabat diferente dira. Soinuen bolu- mena eta tonua aldatu. Zu imitatzeari uzten badio, imitaiozu berriz.
- Sarah-k hitz eta letrekiko interesa badu, erabil itzazu Sarah-k berak soinuak egin ditzan. Idazten dizkiozuen bitartean, letren izenak esan beharrean nola ahoskatzen diren azaldu.

Esanahiak partekatu



Yatin-ekin hitz egiten dudanean, objektuak hartu eta erakutsi egiten dizkiot zertaz ari naizen jakin dezan; hala ere, ez dut uste objektuaren eta esaten ari naizenaren artean inolako erlaziorik aurkitzen duenik.

Ulertzeko gakoak

- Hainbat haur autistak, kolpeak ematea bezalako jarduera errepikakorrentzat objektuak erabiltzen dituzte. Hala ere, seguru aski objektua zer den ez dakite, ez eta zertarako balio duen ere.
- Beste hainbat haurrek, entzundako hitzak errepikatzen dituzte, objektu edo marrazki jakin bati lotzen ez dioten arren. Ahozko lengoaia praktikatzen ari direla dirudien arren, ez dira inorekin komunikatzen.
- Hainbat haur autistak ez dute interesik erakusten heldu batek objektu bati arreta eskaini diezaioten nahi duenean.
- Hurbileko pertsoneri ez dizkiete gauzak erakusten, ez eta begiratu ere haien arreta erakartzeko.

Estrategia erabilgarriak

Ikus 1. unitatea - Nirekin jolastu - 38. or.

- Yatin-en ekintzak imitatu, egiten ari denean interesatuta zaudela erakusteko. Zuri erakutsi nahian, gauzak egitera animatuko du.
- Kapela xebreak edo jantzi dibertigarriak eramanez ikus zaitzan anima ezazu. Era berean, aurpegirako pinturak erabili eta aurpegi bereziak jar ditzakezu.
- Argazkiak, ispiluak edo mozorroak erabili Yatin-ek zuri begiratzeko, edo bere buari edo beste pertsoneri begiratzeko.
- Erakutsi iezazkiozu zeuk egindako gauzak, eta erakutsi nola funtzionatzen duten.
- Hitz egiten dizkiozun gauzen inguruan Yatin-en interesa areagotzeko, gauza horiek gorde eta aurkitzeko jokoak erabili. Hodi luze bat hartu, mutur batetik gauzak sartu eta bestetik ager daitezen itxaron. Objektuari buruz hitz egin objektua bera desagertu eta agertzen den bitartean.
- Seinalatzeko keinua ulertzen duenean, hitz egiten ari den objektuak seinalatzeko erabili eta esazioz: “Begira, Yatin...”
- Yatin-ekin hitz egiten duzunean, zertaz ari zaren badakiela ziurta ezazu. Arreta objektuan jar dezan ahalegindu zaitez, objektu horretan bere izena edo marrazki bat duen pegatina itsatsiz.
- Objektu, ekintza edo gertakari jakin bati buruz hitz egiten duzun bakoitzean esaldi edo hitz bera erabili. Gehiegi ez hitz egin. Lengoaiak erraza izan behar du eta ete-nak egin behar dituzu Yatin-ek zuri eta hitz egiten ari zareten objektuari begira diezazuen lortzeko.
- Gauzak jendeari nola erakutsi azaldu Yatin-i: “Aitonari erakutsi”. Laguntza behar badu, lagundu eta bere eskua jendeari gauzak erakusteko gidatu.

Tresna gisa erabiltzeari utzi



Joel-ek zerbait nahi duenean, besoa hartu eta bertara eramaten nau.

Ulertzeko gakoak

- Hainbat haur autistak pertsonak, objektuak bailiran erabiltzen dituzte, eurek nahi dutena lortzeko.

- Objektu bat nahi dutela adierazteko, zenbait haurrek helduaren besoa objekturantz bultzatzen dute.
- Beste hainbat oso gauza zailekin ahalegintzen dira norbait toki edo posizio egokian jartzen lortzeko.

Estrategia erabilgarriak

Ikus 1. unitatea - Interes partekatuak - 34. or.

- Joel-ek zu hartu eta objektu batera eramaten zaituenean, zerbait nahi duela esan nahi dizula jakin behar duzu eta ez du bakarrik zu erabili nahi.
- Nahi duena eman aurretik, begira zaitzan edo zu bertan zaudela jakitun dela ohar zaitezen keinu bat egin dezan ahalegindu zaitetz.
- Hainbat egoeratarako esaldi eratuak aukeratu, adibidez “Joel-ek galletak nahi ditu”, “Berriz egin”, “Joel-ek salto egin nahi du”.
- Etena egin esaldia errepikatzeko aukera emateko; hala ere ez kezkatu egiten ez badu. Zuk berriz errepikatu. Garrantzitsua da “*Esan...*” agindua zuk ez erabiltzea.
- Objektuak alde zuzenetik zehaztutako tokietan utzi Joel-ek hartu eta berak nahi duena zuri erakusteko. Anima dezakezu objektua hartuz, bere eskutan ipiniz eta ondoren kenduz.
- Sukaldera eramaten bazaitu eta zerbait edan nahi duela baldin badakizu, gustukoen duen katilua hartuz adieraz dezan anima ezazu, bere eskua, katilua eman diezazun luzatu. Esan, berak erabiltzea gustatuko litzaizukeen esaldia, adibidez “zukua nahi dut” edo “Joel-ek nahi du...”, amaieran berak esaldia osa dezan eten luzea egin.
- Era berean, esan nahi duena beste modu batzuetara adieraz dezan bultzatzea. Gustukoen dituen gauzen marrazki edo izenak dituzten pegatinak, objektu horiek gordetzen diren armairuetan itsatsi ditzakezu. Toki jakin batera eramaten zaituenean, marrazkiak ukitu ditzan animatu.
- Joel-entzako ekintza hori ohiko bihurtzen denean, ezer esan gabe, bi marrazki desberdin erakutsiz bi gauzaren artean aukera egin dezan saia zaitetzke. Marrazkiak, lehendabizi bat eta gero bestea ikusiko dituen moduan ipini, eta nahi duena ukitzen eta zuri ematen anima ezazu. Beharbada, zein nahi duen asmatu egin beharko duzu. Bere gustuak ezagutzen badituzu, marrazki bat bestea baino lehen begiratzen duela

jabetu zaitezke. Edozein modutan ere, marrazkia uki dezan edo zuri eman diezazun ziurtatu behar duzu.

- Joel marrazkia aukeratzeko gai dela ziur zaudenean, marrazkiak taula batean itsatsi, berak nahi duena aukeratu eta zuri erakusteko moduan. Zer egin behar duen irakasteko, taularaino eraman ezazu eta marrazki bat hartzen irakatsi. Edozein kasutan ere, inoiz zure laguntzaren beharra izan dezake. Taulatik kendu, berak hartzea nahi ez duzuna.

Keinuak ulertu



Jaswinder-i zerbait irakasten ahalegin handia egin arren, ez dut lortzen seinalatzen dudan tokira begira dezan. Begiratu besterik ez dit egiten, ezer ulertu gabe.

Ulertzeko gakoak

- Zenbait haur autista erabat nahasita daude, haur txikienek ere ulertzen duten eguneroko keinuekin. Adibidez, hots egiten dietenean edo besoak irekitzen dizkietenean, beharbada, ez dira gurasoengana hurbilduko.
- Zenbaitek besteen mugimenduak imitatzen dituzte, baina esanahia ulertu gabe.
- Hainbatek, keinu argien esanahia ikasten dute, adibidez, agurtzeko edo seinalatzeko eskua inarrotea; hala ere hori, norbaitek zer esan nahi duen zehazki irakatsi die-lako ikasi dute.
- Zenbaitek ez dituzte keinuak erabiltzen euren ingurua ulertzeko. Adibidez, ez dira esertzen besteek esku-azpiarekin adierazitako aulkian.

Estrategia erabilgarriak

- Beti keinu berak egin, egoera berak azpimarratuta. Adibidez, otordu-garaian, euren arreta erakarri eta euren aulkian kolpetxo bat eman, “Jaswinder, eser zaitez” esaten duzun bitartean.
- Otordu-garaian keinu hori ulertzen hasten denean, beste leku eta egoeretan hasi erabiltzen, eser dadin nahi duzunean.

- Jarraian, keinu berria sar dezakezu eguneroko ohituran. Adibidez, eskuarekin keinu bat egin zugana hurbil dadin nahi duzunean. Keinua hori pixkanaka beste une eta egoeratan erabili. Beharbada, keinu bakoitza modu berean bereizita erakutsi behar-ko diozu.
- Erabili zure eskuak, adierazten dituzun gauzak nabarmentzeko, adibidez, handi, txiki, biribil...
- Jaswinder-i aginduak ulertzen laguntzeko, aipatzen ari zaren objektuak seinalatu bera jada begiratzen ari denean.
- Ondoren, bere ikusmen-angelutik hurbil dauden objektuak seinalatu eta begiratzen dituela ziurtatu. Behar izanez gero, bere ikusmen-angeluak kokatu.
- Gustatzen zaizkion eraikitze- jostailuak edo puzzleak erabili. Hurrengo pieza non jarri behar-ko litzatekeen edo zein pieza behar duen adierazi. Seinalatzen duzun bitartean ondoko esaldi-mota hauek erabili: “hori hemen doa”, “pieza hau”.

Seinalatzen ikasi



Gary-k zerbait nahi duenean, edozein tokitara igo eta hartu egiten du, inoiz ez du seinalatzen.

Ulertzeko gakoak

- Seinalatzea, haur txiki gehienek naturaltasunez egiten duten keinua da. Haur autistek zerbait gehiago kostatzen zaie.
- Zenbait haur autistak seinalatzen ikasten badute ere, ez dute hala jarduteak besteengan duen erabilgarritasuna ulertzen.
- Partekatu eta erakusteko modu bezala seinalatzeko hainbat haurren prozesua oso motela da. Askok nahi dituzten objektuak seinalatzen dituzten arren, ez dute interesatzen zaizkienari buruz atenzioa erakartzeko egiten.
- Beti ez dute, besteek seinalatzen dutenean zer nahi duten ulertzen.

Estrategia erabilgarriak

Ikus Tresna gisa erabiltzeari utzi - 48. or.

- Gary-ri seinalatzen irakasten hasten zarenean, interesatzen zaizkion gauzekin egin. Hatz erakuslea erabili behar duen jardueretan aritu biok, adibidez, telefonoz hots egin, botoiak edo etengailuak sakatu, hondarrean marraztu, pastel baten orean zuloak egin eta hatzekin margotu.
- Gustukoa duen zerbait hartzera doanean, bere eskua hartu, seinalatzeko moduan hartzak ipini eta objektua uki dezan ahalegindu zaitez.
- Aukerak egiten irakatsi. Hainbat gauza eskaini, bi janari, bi edari-mota, puzzle batenko bi pieza. Interesatzen zaiona hartzera doanean, beste objektua utzi eta aurreko paragrafoan adierazitako gauza bera egin. Estrategia hori sarritan eta egoera diferentetan egin behar duzu. “Seinalatu” edo “zein nahi duzu?” bezalakoak ez esaten ahalegindu. Baina izendatu berak aukeratutako objektua.
- Bere gustuko jostailua, eskuratzeko zaila den toki batean ipini. Hartu nahi duenean, bere eskua berriz hartu eta hartzak objektua seinalatzeko moduan ipini.
- Gary-k seinalatzen eta nahi duena lortzeko helburuarekin zuri begiratzen ikasi ondoren, esaldi gehiago erabili berak errepika ditzan. Hitzak ikasteko prozesuan badago, objektu horren izena esan eta etena egin. Hitza ezagutzen ez duela uste baduzu, esan “hau”.
- Gary-rekin joko batera jolasten duzunean, gauzak seinalatzen ikus zaitzan eta esanahia ikas dezan txandak egiten ahalegindu zaitez.
- Gary-ri, zerbait aukeratzeko helburuarekin seinalatzen irakatsi ondoren, seinalatzeko beste modu bat irakatsi behar diozu, bereziki bere arretera zuzendu nahi badugu “Begira...” Ahal duzun guztietan gauzak neurritz gain seinalatu. Hurbileko gauzekin hasi, adibidez, liburu batean jasotzen dena, eta gero, urrunago dauden gauzak seinala ditzakezu, hegazkina zeruan edo gure aurretik pasatzen den tren.

Aurpegi-espresioak ulertu



Behin, Richard-i nire aurpegiaren espresioarekin, egiten ari zen hartan interesatuta nengoela erakusten saiatu nintzen, baina ustez ez zidan ulertu.

Ulertzeko gakoak

- Zenbait haur autistak ezin dute ulertu jendeak aurpegiko espresioaren bidez adierazi nahi duena, ez eta espresioak oso nabarmenak direnean ere.

- Hainbat ez aurrera ez atzera geratzen dira jendeak bromak egiten dizkienean, adibidez, “Zure bila etorriko naiz” gogorra gertatzen zaie eta beharbada, ez dute hiztunaren irribarrea antzematen.
- Zenbaitek, euren hitz egiteko moduagatik edo ezartzen dituzten aurpegiengatik oihas itxura eman dezakete. Batzuetan besteei bizkarra ematen diete.

Estrategia erabilgarriak

- Zure keinu edo espresioak handitu. Ez kezkatu itxura harritu, alai edo deserosoegia emateagatik.
- Hasieran bromarik ez egin. Hala ere gertatuko dena aurreratu, adibidez esan “kilmak egingo dizkizut” lagunarteko doinuaren eta irribarre eginez.
- Eman nahi duzun mezua eta aurpegian, ahotsean eta hitzetan erakusten duzuna bera izan behar dute. Adibidez, haserre bazaude haserre espresioan, ahotsean eta erabilitako hitzetan erakutsi behar duzu.
- Antzeko egoeratan espresio eta hitz berak erabili.
- Richard ahozko lengoia ulertzeko gai bada, esaiozu: “Begira aitaren aurpegia” eta une horretan duzun espresioak zer esan nahi duen azaldu. Ikus *1. unitatea - Gizarte-interesa eta - kontzientzia - 23. or.*
- Erabilgarria izan daiteke telebistako eta argazkietako jendearen espresioak begiratzeari. Aurpegi alai, triste, beldurti, emozionatu eta abarri buruz hitz egiozu.
- Elkarrekin ispilu batean begiratu eta aurpegi bereziak jartzera jolastu.

(Lengoia erraz eta dibertigarria izateari buruzko iradokizun gehiago, *1. unitatean - gizarte-elkarrekintza - 21. or.*)

Hitzak eta hauen esanahia ikasi



Ross-ek hainbat hitz imitatu eta behin edo bitan errepikatzen ditu, baina ondoren ez ditu gehiago erabiltzen. Inoiz ez du hitzetarako interesik eta ez du gauzarik kontatzen anaiak egiten zuen moduan.

Ulertzeko gakoak

- Haur autista askori zaila egiten zaie zizakaduretatik hitz ulergarrietara pasatzea.
- Beste hainbatek hitzak bitan erabili eta gero baztertu egiten dituzte.
- Euren lexikoa eskasa da eta normalean gauzak izendatzera mugatzen dira. Zenbait haur hitz berak errepikatzen itsutu egiten dira.
- Haurrak hitz egiten ikasten ari direnean, hitz berri bati berezkoa baino askoz ere esanahi zabalagoa edo mugatuagoa ematen diote. Adibidez, “katua” hitzak euren ustez etxean dutenari egiten dio erreferentzia, eta ez kanpoan daudenei, gauza bera gerta daiteke “aita” hitzarekin, edozein gizon izendatzeko erabil dezakete. Haur autistek denbora luzeagoa eman dezakete hori egiten, garapen normala duten haurrek baino.
- Sarritan haurrek esaldi osoak ikasten dituzte; hala ere, haur autistak beharbada, ez dira gai izango esaldia hitz asketan banatzeko eta ezingo dituzte hitz horiek esaldi berritan erabili.
- Zenbait haur hitz-ordena zailak errepikatzeko gai dira, adibidez alfabetoa, baina zer esaten ari diren ez dakite.

Estrategia erabilgarriak

- Ross-en interesak erabili, hitz berriak ikas ditzan lortzeko.
- Ez zaitez gauzen izenetan kontzentratu. Liburu jakinen laguntzarekin “geratu”, “atera”, “irribarre egin”, “barre egin”, “hitz egin” bezalako ekintzei buruz, edo kolore, zenbaki edo “txiki” edo “handi” bezalako beste deskribapen-motari buruz hitz egin dezakezu.
- Nahi dituen gauzak eskatzeko hitzak erabil ditzan, hasieran imitatuz bakarrik, anima ezazu. Era berean, egoera askotan erabil ditzakeen “gehiago” edo “berriz” esaten irakats diezaiokezu, adibidez zuku *gehiago*, jogurt *gehiago* nahi duela edo joko berarekin *berriz* jolastu nahi duela edo kanta bera *berriz* abestu nahi duela esateko. Estrategia hauek Ross-i esaldi labur ugari irakasteko aukera ematen dizute, berak imita ditzan.
- Zerbait nahi ez duenean “ez” esaten irakatsi. Adibidez, jostailu bat baztertzen duela ikusten duzunean, esan “ez” berak imita dezan. Horren bidez aukeratzen lagunduko diozu; ziurtatu behar duzu, ahal den guztietan bere ezezkoak onartu egiten dizkiozula.

- Ross-ek zerbait esaten badu, erantzuten diozula ziurtatu. Zerbait esan nahi izan balizu bezala joka ezazu, gogoratu helburua jendearekin hitz egin dezan dela.
- Poza erakutsi eta Ross-ek hitz bat esateko egin duen edozein ahaleginari erantzun, oso zuzen ahoskatzen ez badu ere. Adibidez “sarri” beharrean “sari” esaten badu, hitza zuzendu baina ez errepikatu ondo esaten duen arte.
- Ross-i gauzak beste haurrei eskatzen irakatsi, etxean zein norbait bisitatzera joaten denean.
- Gauzak bere kabuz hartu beharrean eskatu egin behar dituen hainbat une daudela ziurtatu.
- Ross, ez prestatu ulertzen ez dituen zerrenda luzeak goitik behera buruz esatera.

Hitzak etiketa baino zerbait gehiago bezala erabili



Daniel-ek hitz asko erabiltzen ditu. Bere inguruko gauza guztiak izenda ditzake, baina ez du inorekin hitz egiten.

Ulertzeko gakoak

- Hainbat haur autistak gauzen izenak ikasi eta behin eta berriz erabiltzen dituzte. Izen horiek oso erraz ikasten badituzte ere, ez dute beste hitzik ezagutzen. Etiketen bilduma egingo balute bezala da.
- Sarritan hitzak ez dituzte inori ezer zehatza esateko erabiltzen. Era berean ez dituzte beste pertsoneri objektuak seinatzeko edo gauzak eskatzeko erabiltzen.
- Zenbaitetan haurra gelan bakarrik dagoenean hasten da hitz egiten, baina hitz egiteak zertarako balio duen ez daki.

Estrategia erabilgarriak

- Daniel-ek zerbait izendatzen duen bakoitzean, zuri zuzenduko balitzaizu bezala erantzun ezazu. Objektua hartu eta bion artean ipini, objektua eta zure aurpegia ikus-teko moduan, eta adibidez ondoko hau esan: “bai, beribil gorria da”.
- Gelan ez dagoen zerbait izendatzen badu, eskatu izan balizu bezala egin eta ekarri. Teknika horretan sakondu, hasieran ez aurrera ez atzera geratuko den arren.

- Eman eta jasotzeko jolasekin aritu. Zuk Daniel-i objektu bat eskatuko diozu berekin jolasteko eta Daniel-ek ondoren beste bat eskatuko dizu.
- Daniel-ek zerbait eskatzeko bere etiketak erabiltzeko beharra izango duen egoerak planteatu. Gustukoen duen jostailua hel daitekeen lekuetatik kanpo ipini baina ikus dezakeen tokian.
- Zerbait egiten ari zaren bitartean, egiten ari zarenari buruz Daniel-ekin hitz egin. Horretarako erabilgarriak dira ekintzei buruz hitz egiten duten jolasak.
- Aipatzen ari zaren objektua ukitu, ahal baduzu.
- Objektuen ezaugarriei buruz hitz egin, hots, kolorea, forma, neurria. Kolore bereko objektu ugari hartu eta kolorea esaten hasi, bakoitza ukitzen duzun bitartean.
- Daniel, etiketak bakarrik ez diren hitzak eta esaldiak erabil ditzan animatu. Gustukoen dituen jostailuen izenak erabili eta ekintza-hitzak sartu. Adibidez, “salto egin!”, “irten”, “lo egin”, “geratu”, jostailuak ekintza bakoitza irudika dezan ahalegindu. Ekintzak berriz errepikatzeko eskatzen ote dizun ikusteko etena egin.
- Hasieran ekintza-hitz gutxi batzuk aukeratu hainbat jardueratan erabiltzeko. Daniel-ek jolas fisikoak eta zakarrak gustukoak baditu, berak zuk zerbait egin dezazun nahi badu zein hitz erabili behar dituen erakuts diezaiokezu, adibidez, “berriz”, “kilimak egin”, “salto egin”.

Lengoaia ulertu



Alison-ek esaten dugunaren zati batzuk besterik ez du ulertzen.

Ulertzeko gakoak

- Jendeak hitz egiten dienean zenbait haur autistak ez dute erantzuten edo interesik ez dutela dirudi. Hots egiten dietenean ez dute begiratzen, eta ez dira biratzen norbaitek “non dago ama?” galdetzen dienean. Era berean hainbat aginduri ez diete erantzuten, adibidez, “afaltzeko garaia da” edo “kanpoan jolastuko dugu”.
- Zorritzarez jokabide horrek, haurrak esan txarrekoak eta tematiak direnaren itxura eman dezake. Senitartekoei edo lagunei haurra zein esan txarrekoa den entzutea, berez nolakoa den ulertu gabe, zaila gerta daiteke gurasoentzat.

- Zenbaitetan, eskatu zaiena egiten hasten badira ere, erdira heltzen direnean bertan behera uzten dute zertan ari ziren ahaztuko balute bezala.
- Hainbat haurrek esaten dietenaren zatiak bakarrik jasotzen dituzte eta zenbaitetan ez dute zati garrantzitsua entzuten. Adibidez ondoko hau esaten badiezu: “Katilua mahai-gainean ipini”, beharbada, “katilu” hitza besterik ez dute jasoko eta bat ekartzen dizute.
- Haur horiek oker interpretatu edo literalki ulertzen dute jendeak esan nahi duena. Adibidez, “Eman eskua” esaten badiete, seguru aski eskua zabalduko dute.
- Zenbait haurrek, besteek esandako guztia edo zati bat loroek bezala errepikatzen dute. “Hotza al duzu?” galdetzen badiete, eurek “duzu” esango dute. Ikus *Oihartzun-motako erantzunak saihestu* - 58. or.
- Zenbait haur autistak galdera bera behin eta berriz errepikatzen dute.

Estrategia erabilgarriak

- Alison-ek jendeak esaten duenari zein egoeratan erantzuten dion zuzen identifikatu. Hitz berak antzeko egoeratan erabiltzen saiatu. Adibidez, “aita etxera heldu da” esaten duzunean buelta emateko gai bada, gauza bera esateko esaldi hori erabili beti.
- Ohiko jarduerari buruzko esaldi-zerrenda prestatu, familia osoak erabil ditzan.
- Esaldi horiek, zentzua duten unetan bakarrik erabili.
- Alison-i bere izenez deitu esaldiaren hasieran, eta ez amaieran, bere arreta erakartzeko. Beharbada, bere izena aipatzeaz gain sorbalda kolpetxo bat eman beharko diozu.
- Alison-i gertatuko dena erakusteko objektuak erabili, adibidez, afaltzeko ordua dela adierazteko koilara. Beti helburu berberak izan behar ditugu gertatuko dena aurreikusten ikas dezan. Ikus *3. unitatea - Errepikapeneko jarduerak: ondoren datorrena ezagutu* - 74. or.
- Berekin jolasten duzunean zure asmoak argi erakutsi. Adibidez, “marrazten has gaitzen” esan aurretik papera eta margoak atera.
- Lengoaia erraza erabiltzen ahalegindu. Zeregina hurbilagoa denean, ulermena handitzen ahalegindu zaitzke, lengoaia pixka bat desberdina erabiliz.

- Alison beste hainbat hurrekin dagoenean, adibidez, jokoan taldean, zaintzaileei aginduak banan-banan azal ditzaten eskatu. Lengoaia erraza erabil dezaten ahalegindu, hitz garrantzitsuak azpimarratuz.
- Galdera bati erantzuteko, aginduari jaramon egiteko edo zer esan pentsatzeko nahiko denbora eman.
- Gauzak, egitea nahi duzun ordenan esaten ahalegindu. Aldez aurretik zerrenda prestatu daiteke ordenari eusteko. Ikus 3. *unitatea - Errepikapeneko jarduerak: ondoren datorrena ezagutu - 74. or.*

Oihartzun-motako erantzunak saihestu



Aaron-ek, esaten dudan guztia errepikatzen du, geratu ezinik. Galdetzen badiot: «Zer ari zara egiten?», berak nire azentua erabiliz «Egiten» erantzuten du.

Ulertzeko gakoak

- Zenbait haur autistak, besteek esaten dietena hitzez hitz errepikatzen ikasten dute hitz egiten. Horri, ekolalia esaten zaio.
- Ekolalia *berehalakoa* edo *atzeratua* izan daiteke. Lehen kasuan, haurrak berehala errepikatzen du pertsona batek esandakoa. Bigarrenean, haurrak esaldia ikasten du eta aurrerago osorik erabiltzen du.
- Haurrak esaldi osoa edo zati bat errepika dezake.
- Beste hainbat haur autista esaldi laburrak egiteko gai dira; hala ere, ulertzen ez dutenean, kezkatuta daudenean edo deseroso daudenean, gordetako esaldiak errepikatzen dituzte.
- Zenbait hurrek, entzundako elkarrizketak edo telebistako programetako hizketak buruz ikasten dituzte. Oso ondo errepikatzekeo gai dira, bai eta ahots-tonua eta jarraera imitatzekeo ere.
- Aukera egin zezaten eskatzen dietenean, adibidez, “esnea ala zukua?”, zenbait hurrek “esnea ala zukua” errepikatzen dute eta besteek azken hitza, “zuku” alegia.

Estrategia erabilgarriak

- Ziurtatu Aaron-ek ulertu egiten dizula. Zure lengoaia erraza eta esanguratsua izan dadin ahalegindu, keinuak erabili edo erakutsi zeri buruz ari zaren hitz egiten. Ondoren gertatuko dena aurreikusten laguntzeko argazkiak, sinboloak edo zeinuak erabili.
- Antsietate- edo ondoez-zeinuak hartu kontuan. Beharbada, Aaron-ek bere burua lasaitzeko esaldiak errepikatzen ditu.
- Gertatzen diren *bitartean* gauzei buruz hitz egin, galdera gehiegi egitea saihesteko iruzkinak egin, galderek ekolalia oker baitezakete.
- Bere oihartzun-erantzunei zentzua eman. Galdetzen badiozu “kalera atera nahi al duzu?” eta “kalera” errepikatzen badu, erantzuna baiezko bezala hartu eta irteteko prestatu.
- Errepikatzeko duen joerari etekina atera, esaldi erabilgarriak irakasteko erabili.
- Zure arreta erakartzeko hitzak irakatsi, adibidez, zuri laguntza nola eskatu edo zerbait egin nahi duela nola esan. Helburua, bere hiztegia handitzea da, errepikatzeko premia izan ez dezan.
- Agurtzen duzunean, esan “kaixo” eta ez “kaixo Aaron”, era horretan, erantzuna errepikatzen duen arren, egokia izango da.

Hitzak bateratu eta erabiltzen ikasi



Adam-ek gauzak izendatzen ikasi du, baina oraindik ez du esaldirik egiten.


Ulertzeko gakoak

- Lengoiaren garapenean hainbat haur autista bidean geratzen dira hitz isolatuak erabiltzen.
- Beste hainbat haurrek hitz berriak ikasten dituztenean, aurretik zekizkitenak erabiltzeari uzten diote. Beren hiztegia ez da handitzen, aldatu baizik.
- Zenbait haurrek gai bereberei buruz hitz egiten dute, hitz edo esaldi bera erabiliz egu-nero modu berean.

Estrategia erabilgarriak

- Adam-ek zerbaiten inguruan interes handia duen uneak aprobetxatu, egoera difereenteetan erabili ahal izango dituen hitz edo esaldi berriak irakasteko.
- Esaldiek errazak izan behar dute: “lagundu”, “bideo” (bideo-zinta jartzeko), “nahi dut”, “hau”, “gaileta”, eta abar.
- Adam-ek zerbait nahi duenean, “nahi dut” espresioa, ezagutzen dituen hitzekin erabil dezan ahalegindu, adibidez, “hori nahi dut”, “liburu bat nahi dut”, “zukua nahi dut”.
- *Laguntza* behar duenean, “lagundu” esaten irakasten ahalegindu.
- Zerbait nahi *ez* duenean, “ez dut gustuko”, “ez dut nahi”. Lengoaiaren indarra eza-gutu dezan garrantzitsua da, horregatik ahal den guztietan bere ezezkoak errespetatu behar dituzu.
- Gauzak *desagertzen direnean*, “zukua amaitu da” edo “aitak alde egin zuen” bezalako esaldiak erabil ditzakezu.
- Zerbait *berri*z nahi duenean, “berri” edo “gehiago” irakatsi.
- Esaldi horiek esaten hasteko, imitatzeko eredu jarraitu behar du, horregatik erabili berekin jokatzeko duzunean. Adibidez, “amaren txanda”, “goazen”, “joan zen”, “ez, eskerrik asko”.
- Adam esaldi luzeagoak esateko gai dela uste baduzu, denbora eman. Haserretzen bada, esaldia zuk zeuk esan eta berak nahi duena egin edo kezkatzen duen jarduerarekin amaitu. Egoera-mota honen aurrean zauden bakoitzean, berri ahalegindu.

Jendeak esan nahi duenaren esanahia ikasi



Robin-i behin ondoko hau esan nion: «Sukaldetik plater bat ekarri». Bera norabide zuzenean joan bazen ere ez zen platerarekin itzuli «ekarri Robin» esan nion arte.

Ulertzeko gakoak

- Hainbat haur autistak, besteek esaten dutena ulertzen ahalegin handia egiten dute. Zenbaitetan ez dira gai hitzetan mezu *inplizituak* “irakurtzeko”.

- Haur autistak asko nahasten dira norbaitek hitz egiten dienean. Ez dira gai informazio garrantzitsua solaskidearen hitz, keinu, ahots-tonu eta aurpegiaren espresiotik ateratzeko.
- Zenbait haurrek espresioak eta aldaketak, gauzak esaten zaizkien moduan identifikatzen ikasten dituzte. Zenbaitetan keinuak eta espresioak hitzak baino garrantzitsuagoak direla ikasten hasten dira. Denbora luzea ematen dute prozesu honekin eta zaila egiten zaie.
- Batzuetan, elkarriketaren mekanismoak ulertzen dituzten haurrak ere harritu egiten dira erabiltzen diren espresioekin. “Buelta bat ematera goaz” edo “barrez lehertu zen” bezalako espresioak erraz nahasten dituzte eta literalki interpreta ditzakete.
- Haur horiek, esanahia ulertzen ez duten hitzak edo esaldiak errepikatzen dituzte. Horrenbestez, bere ahozko lengoaiaren maila, erakusten duten *ulermen*-maila baino *altuagoa* dela eman dezake.

Estrategia erabilgarriak

- Robin nahasi dezaketen “Eskua luzatu” bezalako esaldiak erabiltzen saihestu.
- Zerbait ulertzen ez duenean galde dezan animatu.
- Esaiouzu zehazki zer nahi duzun egin dezan. “Liburua har dezakezu?” esan beharrean, “ekarri liburua, mesedez” erabili.
- Keinuk eta agerraldiak erabilgarriak dira ahozko lengoia ulertzeko. Zerbaiti buruz *hitz egin* eta aldi berean *erakutsi*.
- Eskatzen diozuna egiten ez badu, kontuan hartu mezua ulertu ez duelako izan dela, eta ez, esan txarrekoa delako.
- Robin-i interesatzen bazaio eta ulertzeko gai bada, normalean erabiltzen duzun espresioetako bat azaldu.
- Espresio metaforikoen edo esanahi bikoitza duten espresioen marrazkiak egin, bat esanahi literalarekin eta bestea benetan esan nahi duenarekin. Ariketak dibertigarriak izan daitezten ahalegindu.



Rosie-k asko hitz egiten du, baina inoiz ez besteek diotenarekin lotuta. Sarritan elkarrizketa eteten du eta inoiz ez dio elkarrizketako lagunari begirutzen.

Ulertzeko gakoak

- Hainbat haur autistak ez diote jendeari begirutzen, nahiz eta jendeak, orokorrean zein eurei zuzenduta, hitz egiten jardun.
- Beste hainbatek pertsoneri zuzen-zuzenean begirutzen diete hitz egiten ari direnean.
- Batzuetan ez dute ulertzen hitz egiteko edo jolasteko txanda-sistema.
- Zenbaitetan elkarrizketa-gaiarekin zerikusirik ez duten gauzak esaten dituzte, eurek esan behar dutenarekin *interes* handiagoa dute eta.

Estrategia erabilgarriak

Ikus 1. unitatea - Aurrez aurre begiratu - 29. or.

- Zerbait esaten hasten zarenean, Rosie izena aipatu erlazio bisuala egon dadin. Behar izanez gero, bere ikuspen-angeluan jar zaitez.
- Hitz egiten dizunean edo besteek hitz egiten diotenean begirutzen ez badu, gogoraztea ez ahaztu: “begira nazazu, begira gaitzazu”.
- Rosie-k txandak egiten ikas dezan objektu bat erabil daiteke (adibidez koilara bat), objektua eskuetan duenak bakarrik izanik hitz egiteko eskubidea. Pertsona bakoitzak hitz egiten amaitzean, objektua hurrengoari emango dio. Rosie-k joko-talde batean parte hartzen badu, irakasleei joko hau haur-talde txikiekin erabil dezaten eska diezaiekezu.
- Elkarrizketako gaia aldatzen bada, aurreko gaira itzul zaitezke “Loreei buruz ari ginen hizketan, ez trenei buruz. Zer lore-mota direla uste duzu?”
- Zalantzarik ez izan isil dadin esaten, gehiegi hitz egiten ari dela, edo gai berari buruz behin eta berriz ari dela uste baduzu. Gustukoan dituen gaiei buruz hitz egin dezan uneak edo tokiak ezar ditzakezu. *Ikus 3. unitatea - Errepikapeneko jarduerak - 73. or.*

- Eguneko hainbat unetan Rosie-k jendearekin hitz egiteko aukera duela ziurtatu.
- Nola egiten den ikus dezan, hainbat haur edo helduri berekin hitz egin dezaten animatu.
- Hitz egiten ari den lagunari begiratu egin behar diola esaiozu.
- Rosie-ri gaia berak hautatu eta elkarrizketa aurrera eramateko aukera eman.
- Txandak egiten laguntzeko, “aitonaren txanda da”, “begira aitak zer marrazki egin duen”, “amak gustukoa du...” bezalako gauzak esan.

3. UNITATEA: IRUDIMENA ETA OHITURA-PREMIA

Sarrera

Irudimenak eta itxura egiteko gaitasunak, gure pentsaera sortzaile eta malguagoa egiten dute. Gauzek ez dute modu bakar batera izan behar, planifikatu, aurreratu eta gauzak beste modu batera *bailiran* joka dezakegu. Irudimenak gauzak beste ikuspuntuetatik ikusten laguntzen digu. Simulazio-jokoak azaltzeak, irudimena garatzen ari denaren lehen zeinua da. Haur autistetan prozesua oso motela edo berezia da. Zenbait kasutan, inoiz ez da burutzen.

Autismoan hainbat larritasun-maila daude, eta horrenbestez ikasteko zailtasunak aldakorrak dira. Arazoak irudimenaren bidez modu askotara ere zehazten dira. Hainbat hurrek inoiz ez dute jostailu baterako edo honek *ordezkutzen duenari* buruzko interesik erakusten, bereizgarri fisiko edo xehetasun txikietan bakarrik jartzen dute arreta. Zenbaitetan sukaldeko ontzitxoekin edo jostailuzko beribilekin jolasten duten arren, euren jolasetan ez dute istorio korapilatsuagorik planteatzen. Zenbaitetan istorioak eta pertsonaiak islatzen badituzte ere, liburu edo bideo-zintetatik ateratako istorioak izaten dira. Jolas horiek asko errepikatzen dira eta beste hurrek eurekin jolasten badute pertsonaia finkoak irudikatzen behartuta daude.

Irudimen-faltari lotutako ohikeria eta jokabide errepikakorrak dira autismoaren beste ezaugarria. Autistek zailtasunak dituzte modu malguan pentsatzeko eta gauzak nola izan daitezkeen imajinatzen. Era berean etorkizuna aurreratzeko eta planifikatzeko zailtasunak dituzte. Eurentzako mundua toki ezezaguna da, eta horregatik seguruago sentitzeko jokabide kontrolatuko ohitura eta patroizko finkoak zehazten dituzte. Mundua ulertzen zailtasuna dute, batez ere jendea eta hauen lengoia; horregatik aukera errazena alde batera uztea da, jarduera errepikakorrak zehaztuz eta oso interes mugatuak garatuz.

Jokabide errepikorraren ondoriozko arazoak modu askotara azaltzen dira, haurren adina, eta autismoaren eta ikasteko beste hainbat zailtasunen larritasun-mailaren arabera. Jarduera errepikorrak ere besoak biratu edo mugituz azaltzen dira, mugimendu horiek objektuen mugimenduarekin, jostailuak mugiaraztearekin edo kolpeak ematearekin bateratzen direnean. Zenbaitetan haurrak gauzak beti modu berean egin nahi ditu edo gauza guztiak modu berean gorde daitezzen exijitzen du. Beste hainbatetan jarduera jakin batekin itsutzen dira, adibidez, beti bideo bera ikusten dute edo gai beraz hitz egiten dute. Haur autistak ere sarritan oso zurrinak dira ikasteko moduan. Adibidez, gauza jakin bat toki jakin batean egiten ikasten badute, euren trebezia berriak beste hainbat egoerataraz eramateko ez dira gai.

JOLAS-TREBETASUNAK GARATU

Hasi aurretik

- Haur autistek oso jolasteko modu berezia izan dezakete. Zenbaitetan simulazio-jokoak inoiz ez dira garatzen, eta hala eginez gero aurrerapena oso motela eta beste haurrekiko oso diferentea izan daiteke.
- Zenbaitetan haur autisten jolasa ohituretarako duten premiak mugatuko du. Jolasak ohiturazko jarduera dirudi, jolasa baino gehiago; besteak kanpoan uzten ditu eta jolasek eskaini dezaketen ikaskuntza-aukera guztiak saihesten ditu.
- Helburu garrantzitsua jolas diferenteak sustatzea da, esperientzia berriak eta ikaskuntzarako aukera izan dezaten; horrek bide batez, haurren gozamina eta dibertsioa handitu egiten du. Ezin da ahaztu ez dela ikasteko bakarrik jolasten, baita dibertitzeko ere.
- Haur autistek ere besteekin nola jolastu eta pertsonak interesgarriak eta dibertigarriak izan daitezkeela ikasi behar dute. Horrek guztiak, ikasteko esperientzia eta aukera berri ugari eskaintzen ditu.
- Beste helburua, zailagoa eta epe luzera, haurrari jolas irudimentsuagoetan parte hartzen laguntzea da. Horretarako, haurraren pentsamendu-malgutasuna garatu behar da, buruan bi kontzeptu izan ditzan: batetik gauza bat *dena* eta bestetik *irudikatzen duena*.

Obsesioak gizarte-joko bihurtu



William, hartutako guztia lurrean biraka jartzen saiatzen da; gu beti kanpoan uzten gaitu.

Ulertzeko gakoak

- Jarduera errepikakorrak jendea alde batera uzteko moduak dira, asmo horrekin has- ten ez badira ere. Pertsonak zorrotzak dira eta haurra nahasten dute; horregatik ho- nek, bere jardueretatik kanpo uzteko ahalegina egiten du.
- Zoritxarrez, jokabide horrek haurrari ikasteko modu garrantzitsuetarako atea ixten dizkio.
- Jarduera errepikakorrak eta obsesioak jarduera fisiko sinpleetatik hasi (gauzak lu- rrean biraka jartzea edo objektuak kolpatzea) eta egoera korapilatsuetara arte joan daitezke (bakar-bakarrik astronomia edo xurgagailuak bezalako gai jakin batzuei buruz hitz egin nahi izatea).

Estrategia erabilgarriak

- *Beste haurrekin partekatzen ikasi - 70. or.* kapitulu- an iradokitzen duten bezala, Wi- lliam-en jolasekin bat egitea erabilgarria izan daiteke.
- Bere ondoan jolastetik, jostailuak berarekin partekatzen ahalegintzera pasatu zai- tezke. Egiaztatu, zu bertan zaudela eta zu ere gauzak biratzen ari zarela konturatz- en ote den.
- Hori egin ondoren, berak birarazten duen objektua *partekatzen* has zaitezten ga- rrantzitsua da. William, zu bertan zaudela eta birarazten duzun objektua zein den ja- betzen denean, biok objektu bera parteka dezazuen ahalegindu. Txandak ezar ditza- kezue. Hasieran zure txandak luzeagoa izan beharko du, baina poliki-poliki txanden iraupena parekatu egin behar duzu.
- Berak hori onartu ondoren, saio diferenteetan objektu diferenteak erabiltzen ahale- gindu zaitez.
- Bion partaidetza eskatzen duten objektuak dituzten jokoetan hasi. Ideiak, *Imitatzen ikasi - 69. or.* atalean aurki ditzakezu, adibidez, objektu bat biratuz zuen bion artean pasatu. Irudimena erabiltzen saiatu.
- William zurekin jolasean dibertitzen ari dela uste duzunean, objektuaren orde- z pilota bat edo beste hainbat jostailu hartu eta beste joko batzuetan hasi jolasean.
- Hainbat haurrentzako errazagoa da helduak eurei bere manian laguntzen ikustea, jardueraz aldatzeko presionatuak sentitzea baino. Hasieran, deserosoa gerta dakizu- ke, baina ahalegindu zaitez. Imitatu, denbora jakina igarota geratuz eta berriz hasiz.

Zu bertan zaudela eta imitatzen ari zarela ohar dadin ahalegindu zaitez. Jokoa jarduera partekatu bihur dadin saia zaitez txandak ezarriz.

Obsesioak, joko zailagoa garatzeko erabili



Michael-ek iturriko urarekiko obsesioa du.

Ulertzeko gakoak

- Haur autistek objektuekin oso modu mugatuan eta errepikakorrean jolasten dute. Zenbaitetan, beribil baten gurpila bezalako jostailuaren xehetasun bakar batekiko erakusten dute interesa, eta jostailuaren beste guztia, beribila gure kasuan, alboratu egiten dute. Beribilari kolpetxoak ematen edo zuzen-zuzen begiratzeko, normalean ezohiko angelu batetik, obsesiona daitezke.
- Hainbat obsesio eta jarduera errepikakorrak simulazio-jokoak iruditu arren, arreta ipiniz gero, liburu edo bideo-zinta batetik kopiatutakoak direla ikus daiteke. Sekuentzia horiek zehatz-mehatz modu berean errepikatzen dira behin eta berriz.
- Obsesio eta jarduera errepikakorrak arazo bihur daitezke haurrari ikaskuntzarako beste aukerak eskuratzeko aukera kentzen badiote.

Estrategia erabilgarriak

- Michael-ekin bat egin bere mania eta obsesioetan.
- Ipini ura hainbat kolore edo burbuilekin zenbait edukiontzitan; Michael, urak dituen hainbat ezaugarri kontura dadin ahalegindu.
- Prest dagoela uste duzunean, urarekin jolas dezan animatu. Ura isurtzen, ontziak betetzen, ura iragazten edo ehogailu baten bidez botatzen irakatsi. *Urarekin jolastea* mugitzen *ikuste*a bezain dibertigarria izan dadin ahalegindu zaitez.
- Jarduera hau partekatzen ahalegindu zerbait elkarrekin egiteko. Adibidez, inbutua eta edukiontzia zaintzen dituen bitartean, zuk ura bota dezakezu.
- Jolas partekatuan material diferenteak erabili. Bainugela leku aproposa izan dateke.
- Urarekin jolasten duzuen bitartean, imitazioa, aurrea hartzea eta txandak egin daitezkeen sustatu.

- Simulazio-jokoetan ura erabili. Picnic egitera zoaztela eta edalontzietan edateko ura isurtzen duzuela antzez dezakezue. Hasieran beharbada, imitatu bakarrik egingo dizu, baina lehen pausoa besterik ez da.

Imitatzen ikasi



Orain Hugh-ek bere ondoan jolasten uzten badit ere, ikusezina banintz bezala tratatzen nau.

Ulertzeko gakoak

- Haur autista batek besteekin harremana nahita saihesten ez badu ere, beharbada, beste pertsonetara ez du interesik erakutsiko.
- Haur autisten guraso askok euren seme-alabak nahi dituen gauzak lortzeko bakarrik eta objektuak bailiran erabiltzen dituela sentitzen dute euren burua.
- Besteei imitatzea oso pauso garrantzitsua da, eta zure seme-alaba pertsonetara egokitzen hasi dela eta simulazio-jokoetarako lehen pausoa dela esan nahi du.

Estrategia erabilgarriak

- Hugh-i oso interesgarria gerta dakioken zerbait bilatu. Ez du zergatik jostailu bat izan behar, asko erakartzen duen zerbait besterik ez. Berari eman beharrean, bere ondoan objektu horrekin jolastu. Lehen helburua berak zuri begiratzea da. Ondoren, zurekin edo, gutxienez, zure ondoan jolas dezan anima dezakezu.
- Estrategia horrek funtzionatzen ez badu edo nahikoa interesatzen zaion zerbait aurkitzen ez baduzu, berekin bat egiten saiatu. Bere jostailu edo objekturen batekin jolastu, eta poliki-poliki beregana hurbildu. Hugh bere jostailuekin oso berekoia baldin bada, zuk zure jostailuak bilatu beharko dituzu eta beste leku batean gorde.
- Bere ondoan jolastea lortu duzunean, ondoko pauso hauekin ahalegindu:
 - Bere jostailu edo soinuekin egiten ari dena imitatu.
 - Begiratu, bera imitatzen ari zarela jabetzen ote den egiaztatzeko. Beharbada, zeharka begira ari zaizu. Erantzun bat ez lortu arren, ahalegintzen jarraitu.

- Ondoko pauso hauek jokoaren egoera desberdinetan errepikatu. Imintzio eta keinuetan gehiegikeriaz ari zarenik ez pentsatu; mugimendu luzeagoak eta soinu altuagoak egin, aurpegi xebreak jarri.
- Hugh, zu bera imitatzen ari zarela jabetzen denean, *zuk* imitatzeko *berak* zerbait egiten duen joko bat hasi. Jada ez zaude bera egiten ari den zerbait imitatzen aukeratzeko, bera, *zuk* imita dezazun animatzen ari zaizu.
- Ondoren, elementu berririk sartzen uzten dizun egiaztatu eta elementu hori imita dezazun animatu.
- Batak bestea imitatzen duzuen hainbat jolas praktikan jarri.

Beste haurrekin partekatzen ikasi



Simon-ek bere ondoan jolasten uzten badit ere, bere arreba txikiari ez dio hurbiltzen uzten.

Ulertzeko gakoak

- Haur autistek sarritan objektuekin jolasten dute besteengandik isolatzeko. Zenbaitetan, bertan beste pertsona batzuk daudela konturatzeko ez direla dirudi.
- Batzuetan besteek euren ondoan jolas dezaten onartzen dute eta arreba eskaintzen diete; hala ere ez dute partekatze joko onartzen.
- Besteek euren jokoetan parte har dezaten onartzen dutenean, bere arauak jarraituko dituzte eta paper errepikakorra eta oso laburra egin ahal izango dute.
- Haur autistei besteekin harremanak oso estresagarriak egiten zaizkie. Beharbada, partekatzerako animatzen dieten saioen ondoren bakarrik egoteko beharra dute.

Estrategia erabilgarriak

- Simonen arreba nahi badu eta gutxieneko adina badu, *Obsesioak gizarte-joko bihurtu - 66. or.* atalean iradokitzen diren pausoak jarrai ditzake.
- Erosotasunez baina elkarrekin bananduta jolasteko aukera emango dien espazio zabal erabili.

- Simon-ek oso gustukoa duen zerbait aurkitzen duzunean, adibidez zabua, bere arreba hurbil dadin ahalegindu zaitez. Denbora laburra bada ere, hasieran aurrez aurre eta ondoren bata bestearen alboan ipini daitezen ahalegindu zaitezke.
- Arreba, Simon egiten ari dena imita dezan animatu, baina Simon-ekin jolastu gabe. Esaiozu imitatzeke jolasa dela.

Simulazio-jokoetarako lehen pausoak



Gabonetan, Dharmesh-eri jostailuzko sukaldea oparitu genion, baina ez daki zer egin.

Ulertzeko gakoak

- Zenbait haur autistak jostailu eta beste hainbat objektuekin jolasten dute hauen itxurak eta ukipenak bakarrik erakarrita. Objektu horiek biratu, kolpeak eman edo ilaran jartzen besterik ez dakite, *benetan* zer diren ez zaie interesatzen.
- Zenbaitek bai erakusten dute jostailu-mota jakin batzuekiko interesa, adibidez kafe-jolasak, beribilak, garajeak, jostailuzko plantxak, eta abar. Jostailu hauek zertarako balio duten eta nola erabili ulertzen dute, baina erabiltzeko garaian jarduera-segida badago, ez dago irudimen-historiarik.
- Simulazio-jokoak, imitatzeke modu gisa hasten dira. Haur autistek jostailu batekin irakatsi zaien bezala jolasten ikasten dute eta zaila gerta daiteke euren kabuz objektu berarekin jolasteko beste modu batzuk aurkitzea.

Estrategia erabilgarriak

- Dharmesh-ekin ondoko pauso hauek eman:
 - Lehendabizi berekin batera pastel bat egin zure sukaldean.
 - Ondoren, benetako tresnak erabilia sukaldean pastela egiten egongo *bazina bezala* egin.
 - Jostailuzko sukaldea zure sukaldean jarri eta pastela prestatuko bazenu bezala egin. Benetako tresnak erabili baina jostailuzko labean sartu.
 - Ondoren, jostailuzko tresnak erabiliz zure sukaldean pastela prestatuko bazenu bezala jokatu.

- Amaitzeko, jostailuzko sukaldea jokoan jarri berriz eta pastela egiten ari-tuko bazina bezala egin.
- Pauso horiek jarraitzen dituzun bitartean, “egin...bazenu bezala”, “Pastela prestatu-ko bagenu bezala egingo dugu” esaten ez ahaztu.
- Haur bakoitza etapa batetik bestera bere erritmoan mugituko da. Dharmesh-en errit-moa jarraitu.
- Seguru aski prozesu hau beste janari-motarekin errepikatu beharko duzu, adibidez, arrautzak eta patatak.

Imitazioak eta simulazio-joko errazak baino urrutirago joan



Jamie-k irudimena du jolasean, baina beti gauza berak egiten ditu eta beti Playmobil-eko panpinekin.

Ulertzeko gakoak

- Lehen simulazio-jokoak imitazio-modu bat izan ohi dira. Jostailuzko xurgagailua aítak eta amak benetan erabiltzen duten moduan erabiltzen da. Jostailuzko panpi-nak, kutzako marrazkian ikusi bezala ipintzen dira.
- Imitazio horrek zenbaitetan oso eredu zurruna jarraitzen du. Objektuak modu bakar batera ipini daitezke edo eszena zehatz-mehatz bideo-zintan bezala interpretatu be-har da.
- Beste pertsonak jokoan parte hartzen dutenean, eredu bera jarraitu behar dute derri-gor.

Estrategia erabilgarriak

- Bat egin Jamie-ren jolasekin. Ikus *1. unitatea - Nirekin jolastu - 38. or.*
- Bere ohiturak imitatu eta parteka ditzan animatu: berak zati bat egiten du eta zuk bestea. Hori onartzen duenean, zure txandan elementu berri bat sartu. Playmobil-eko panpinekin jolasten ari bazarete, neska txirristatik behera bota eta ondoren za-bura eraman beharrean, txirristatik gurpil birakarira eraman eta ondoren zabura era-man.

- Jamie-k zu imita zaitzan eta bere ohituran elementu berri hau sar dezan animatu. Txandak zurrinak izan ez daitezen ahalegindu. Noizean behin txandaz aldatu. Elementu berriak sar ditzan iradoki.
- Horrek funtzionatzen ez badu, suspensea eragingo duen elementu bat sartu gauza berriak eranstera behartuta sentitu dadin. Adibidez, neska zabutik eror dadin egin eta inguruan anbulantzia ipini. Zorte pixka batekin Jamie eszenan parte hartzen hasiko da.

ERREPIKAPENENKO JARDUERAK

Hasi aurretik

- Autista askok ohituren beharra dutela dirudi. Jarduera errepikakorak, obsesioak eta ohiturak, bizitza aurretik ezagutzea eta bizitza horretan ordena gehitzeko moduak dira, bai eta nolabaiteko kontrola mantentzeko eta antsietatea murrizteko ere.
- Irudimena erabiltzeko eta besteei ulertzeko dituzten zailtasunek murriztu egiten dute autista batek disfruta dezakeen jarduera-kopurua. Jarduera errepikakorak, denbora pasatzeko eta plazera aurkitzeko modu lasaigarriak dira.
- Gauzak pertsonak baino errazago iragarri daitezke eta ez dira hain zorrotzak. Autistentzako pertsonak hainbat kasutan traba eta mehatxu bihurtzen dira. Ohiturak, besteengandik isolatzeko modua dira.
- Helburu garrantzitsua, haurraren ohitura eta jarduera errepikakor horien premia murrizten saiatzea da. Haurraren antsietate-maila murrizteko, bere bizitzak ordena bat izan behar du eta eredu bat jarraitu.
- Jarduera errepikakor eta ohituren kopurua murriztu *behar* da, ez bakarrik haurrak ikasteko dituen aukerak murrizten dituztelako, horietako batzuekin bizitzen zaila delako baizik. Hala ere ez da errealista eta egokia guztiak kentzen ahalegintzea. Helburu bezala, jarduera errepikakorrei eskaintzen dien denbora murriztu edo eguneko une eta toki jakinetara mugatu.
- Epe luzera oso garrantzitsua da haurrak jarduera errepikakor hauen ordez beste mota bateko jarduera atseginagoak eta erabilgarriagoak hartzea.
- Zure exijentziek arrazoizkoak izan behar dute. Aldaketa gehiegi ez egiten saiatu. Zure lengoia erraza izan dadin ahalegindu eta haurrari beretzat espazioa eskaini.



Harpreet ez du ezerk lasaitzen. Erretiratzen ari den zauritua dirudi. Beti ihesi dabil.

Ulertzeko gakoak

- Hainbat haur autista beldurtu egiten dira espazio handia edo txikiegia dutelako.
- Era berean zaila egiten zaie aukera ugari izatea.
- Askori zaila egiten zaie aginduak ulertzea edo gogoratzea.
- Zenbaitetan lan handia dute euren zereginak antolatzen, batez ere pauso jakin batzuek jarraitu behar badituzte.

Estrategia erabilgarriak

- Harpreet-i bere espazioa antolatzen lagundu. Jarduera jakinak leku zehatzekin erlazionatu.
- Egin beharrekoa antolatu, gertatzen ari denari buruz adierazpenak eskainiz. Marrazki sinpleak erabil ditzakezu. Tapiz koloredunak ere jardurekin erlaziona daitezke. Mahai gainean tapiz berdea dagoenean jolasteko garaia da, tapiza gorria bada jateko ordua.
- Zenbaitetan erabilgarria da muga fisikoak ezartzea, batez ere Harpreet toki batean geldirik egon dadin nahi baduzu. Adibidez, jateko garaian bere aulkia alfonbra txiki baten gainean jar dezakezu eta bertan gera dadin animatu. Moketa-oihalkiak erabilgarriak izan daitezke.
- Era berean zinta itsasgarria erabil dezakezu lurrian mugak ezartzeko. Lerroa zantatu ez dezan animatu behar zaio. Lerroa non dagoen gogoratzeko gai denean zintak dezan dezakezu. Ikus *I. unitatea - Minaren aurrean segurtasuna eskaini - 26. or.*



Michael-ek behin eta berriz gauza bat eta bestea noiz egingo ditugun galdetzen du. Nire erantzunez ez da jabetzen.

Ulertzeko gakoak

- Hainbat haur autistak ohiturak garatzen dituzte. Ohiturak, jarduera fisiko errepikakor bihur daitezke edo gauzak modu zehaztuan egitera heldu.
- Zenbaitek gai jakin bati buruz hitz egiten dute edo gai bati buruzko galdera errepikakorrak egiten dituzte.
- Zenbait haurrek antsietate handia erakusten dute familiako ohituratik kanpoko jardueren aurrean eta zer gertatuko den behin eta berriz galdetzen dute.

Estrategia erabilgarriak

- Michael-engan hurbileko etorkizunaren zentzua sortu. Gertatuko denari buruz hitz egin. Esan dezakezu “Lehendabizi... eta ondoren...”
- Michael-en ohitura garrantzitsuagoa izatea lor dezakezu jarduera nagusiak argazki edo sinboloekin lotzen badituzu. Gertatuko dena hobeto ulertzen lagunduko diozu marrazki edo objektu bat erakusten badiozu. Adibidez, igeri egitera bazoazte, flotagailua erakutsi. Erlazio hori ezartzeko, jarduera gertatzera doan *bakoitzean* objektua edo marrazkia erakutsi behar diozu. Michael haurtzaindegira edo jolas-talde batera joaten bada, irakasleek jarduerak iradoki diezazkiokete. Zuk ere ideiak eman ditzakezu. Garrantzitsua da Michael-ekin jolasten duten heldu guztiek antzeko fokatzak erabiltzea.
- Michael-ek sinboloak eta objektuak jarduerekin erlazionatzen ikasi ondoren, hurrengo bi jardueren sinboloekin ordutegia diseina dezakezu. Sinbolo bat bestearen azpian ipini, argi ikusten den leku batean. Michael ordutegiaren aurrean ipini, goiko sinboloa kentzen lagundu eta esaiozu “lehendabizi... eta ondoren...”, bere arreta bigarren marrazkira zuzendu. Lehen marrazkia hartu eta jarduerara eraman. Jardueraren amaiera adierazteko, marrazkia kutxa edo gutunazal berezian gorde.
- Poliki-poliki ordutegia luza dezakezu egun erdia edo egun osoa azaldu arte. Michael sistema ulertzen hasten denean, egunaren hasieran, jarduera-aldaketa bakoitzean eta gertatuko denari buruz galdetzen duen bakoitzean ordutegia begira dezan animatu.

Aldaketetarako prestatu



Ustekabeko zerbait egiten badugu edo bere ohiturak jarraitzen ez baditugu Suresh haserretu egiten da.

Ulertzeko gakoak

- Haur autista askok ohituren beharra dutela dirudi, zenbaitetan eurek ere presta ditzakete. Hainbatetan, euren eguneroko ohituraren une jakinak “heldu” ditzakete.
- Ohitura horien aldaketek arazo handiak ekar diezazkiekete. Ondoren gertatuko dena aurreikusteko ezintasuna eta zalantzaren ondorioz beldurtuko balira bezala da.
- Aurreikusi gabeko jarduerak arazo berak eragin ditzakete. Hala ere, hainbat autistak etxez aldatu edo oporrak atzerrian ematea bezalako aldaketa handiak onartzen dituzten bitartean ez dute garrantzi txikiagoko aldaketak onartzea lortzen.

Estrategia erabilgarriak

- Suresh-en ohitura-premiak errespetatzea eta argi adierazten dituen ordutegia jarraitzea. Adibidez:
 - a) Eguneroko ohituraren fase bakoitzerako hitz jakin bat, marrazki bat edo sinbolo bat aukeratu. Bakoitza, argazki-album batean jarri daitezkeen banakako txartelean ipini.
 - b) Suresh, jarduera bakoitzaren hasieran dagokion txartela ateratzera eta amaieran gordetzera ohitu. Txartel bakoitzaren eta dagokion jardueraren arteko erlazioa ulertzen lagundu.
 - c) Txartelen eta jardueren arteko erlazioa ulertu ondoren, txartelak egun erdiz ohiturak jarraituko duen ordenan ipini; aurrerago egun oso batekin egin.
 - d) Jarduera hasi aurretik, txartela hartu, egingo dena eta ondoren gertatuko dena zehaztu.
 - e) Suresh ordutegira ohitu ondoren, jarduera-aldaketa bat edo bi sar daitezke. Denbora asko lehenago adierazi. Gertatuko dena aldeztu aurretik abisatzea eta ondoren emango dena jakinaraztea, aldaketa onartzen lagun dakiokete. Une honetan bereziki garrantzitsua da txartel bakoitzak jarduera diferenteak irudikatzea; horrenbestez, jarduera berrien txartelak familiaren ohituretan sar daitezke.
- Suresh-i zenbait aldaketa aldeztu aurretik ulertzen kostatu dakiokete, batez ere toki berriak edo jende berria sartzen direnean. Bideo-grabaketak edo argazkiak erakutsita, errazago presta dezake bere burua aldaketak onartzeko.
- Mesedegarria izan daiteke Suresh-ek egoera berriari lotzen zaion zerbait eramatea, haur txikiak euren peluxeekin egiten duten moduan.

- Gertatzen ari dena azaltzeko eta Suresh-i ezusteko jardueraren ondoren gertatuko dena esateko lengoia erraza eta zehatza erabili, adibidez, “ondoren Suresh etxera joango da”, etxearen marrazkia erakutsiz.

Tikak eta mugimendu estereotipatuak



Jack-ek eskuak ero gisa mugitzen ditu haserretu edo urduritzen denean. Nora-bide guztietan oin-puntetan lasterka egiten du eskuei hegoen moduan eraginez.

Ulertzeko gakoak

- Haur autistek antsietate handia dutenean, zalantzatik ihes egiteko jokabide obsesibo eta estereotipatuak erabiltzen dituzte.
- Lehendabizi haur autistari ezohiko tik-ak eta mugimendu errepikakorrak antzematen zaizkio.
- “Bitxikeria” horiek oso ohikoak dira haur txikiaren artean. Denborarekin murriztuz doaz; hala ere zailtasun handiagoak dituzten haurren artean gehiago irauten dute.
- Honelako mugimenduek haurraren gogo-aldartea eta sentimenduak adierazteko balio dute, eta iragarpen- eta plazer-sentsazioak eskaintzen dizkiote. Izan ere, antsietatea murrizteko ezagutzen duen eta kontrola dezakeen gauza bakarra izan daiteke. Hain “bitxia” iruditu ez dezan mugimendu hauek murrizten ahalegintzea merezi du. Hori guztia kontuan hartuta, erabat saihestea zaila izan daiteke, eta ahalegintzea ez litzateke erabat zuzena izango.

Estrategia erabilgarriak

- Etenik ez duten mugimendu hauek antsietate-zeinua edo oso jokabide beharrezkoak dira Jack-entzat. Une eta toki jakinetara muga daitezke. Ikus *Objektuak mugatu, tokiak mugatu - 79. or. eta Denbora mugatu - 80. or.*
- Jokabide hori, epe luzera, Jack-ek bere eskuekin gauza interesgarriagoak aurkitzen dituenetan etengo da. Entretentzeko beste hainbat modu irakastea gomendatzen da.
- Bere maniak burutik kendu nahi dizkiozunean, hitzen eta harreman fisikoaren bidez adierazi. Esaiozu berak egitea nahi duzuna, ez ordea berak ez egitea nahi duzuna.

“Hori ez egin” esan beharrean, “eskuak behera” edo “eskuak poltsikora” bezalako espresio positiboak erabiltzen saiatu.

- Zenbaiti erabilgarria gertatzen zaie eskuak okupatzeko zerbait ematea, adibidez, poltsa bat eraman edo liburu bat heldu.

Trebezia berriak obsesio zaharretarako



Jo-k munduko txapelduna dirudi uztaiaz jolasten, baina ez daki beste ezer egiten.

Ulertzeko gakoak

- Hainbat haur autistak behin eta berriz sentazio fisiko jakinak eduki nahi dituzte, adibidez, zerbait kolpatu, usaindu, hazkatu edo zerbait angelu jakinetatik begiratu.
- Zenbaitetan, behin eta berriz errepikatzen den jarduera horrek gorputz osoaren mugimendua eskatzen du, adibidez, birak eman, salto egin, lerro berean gora eta behera lasterka egin.
- Hainbatetan, behin eta berriz errepikatzen den jardueretan objektuak erabiltzen dira, adibidez, haurrak bere eskuetan hartzen duen guztia errodatu, biratu edo kolpatzen du.

Estrategia erabilgarriak

- Ikus *Obsesioak gizarte-joko bihurtu - 66. or.* Atal honetan, Jo-ren gizarte-jokoan beste pertsona batzuk sartzeko moduari buruzko iradokizunak daude.
- Jo ezer biratzen ari ez denean, jarduera produktiboagoetan parte har dezan saia zaitetz. Jostailuekin edo beste lagunekin jolastuz sari hobeak lortzen direla irakatsi behar zaio. Konturatu behar da, objektuak biratzea beste, objektuak *ez biratzea* ere onuragarri dela. Gehiegi exijitzen bazaio, objektuak biratzen hasi daiteke berriz.
- Zenbaitetan antzeko obsesioak, jolas konplexuagoa garatzeko balio dezake. Adibidez, txanponak eta platerak biratzen zituen haur batek malabarismoak egiten ikasi zuen. Iturriko urarekiko lilura ere handitu daiteke, ura betetz, iragaziz, hustuz eta abar.



Graham-ek begien aurrean bere eskuartera heltzen den edozein objektu birarazten du. Une horretan isolatu egiten da eta ezin dugu bere bakartze horretatik atera.

Ulertzeko gakoak

- Behin eta berriz mugimendu bera duten jarduera errepikakorrek haur asko txunditzen dituzte. Adibidez, euren hatzak begien aurrean mugitzen dituzte edo txandaka bi oinen laguntzaz kulunkatu egiten dira.
- Jarduera horien artean zenbaitetan biratu edo kolpatu egiten dituzten objektuak saritzen dira. Beste haur batzuk gauzak errenkan edo objektu jakinak ordenan jartzen itsutzen dira.
- Zenbait haurrek eskuak objektuekin okupatuta eduki behar dituztela dirudi. Horrenbestez, ezin dituzte beste zereginetarako erabili.

Estrategia erabilgarriak

- Lehendabizi, ondoko pauso hauek jarraituz *objektu*-kopurua mugatzen saiatu behar duzu:
 - “Objektu berezi” bakarria erabil dezan animatu edo gutxienez kopuru murriztua. Beharbada, badu gustuko duen bat; baina hala ez bada, jolasean gustura erabil dezakeen bat aukeratzen lagundu.
 - Adostu ez duzuen objektu batekin jolasten ikusten baduzu, kendu eta “berezieta-ko” bat eman.
 - Helburua, Graham-ek “objektu bereziarekin” *bakarrik* jolas dezan lortzen saiatzea da. Objektu hori, bere mania sozialki onar daitekeen eguneko une jakinetan eskura izan dezake.
- Beste aukera bat, Graham-i objektuekin jolasten uzten zaizkion *tokiak* mugatzea da. Graham-ek bere jarduera aurrera eraman ahal izateko sarrera mugatuko tokia aukeratu behar duzu. Toki hori jolasteko aukerarekin eta objektuak biratu ahal izatearekin erlaziona ditzan nahi da; horretarako, bertan dagoen bakoitzean baimena eman behar diozu; bertan ez badago ordea, ez diozu hori egiten utzi behar. Ondoren, Graham-ek bertan emandako denbora murrizten ahalegindu zaitezke.

- Objektua gero eta txikiagoa eginez, Graham-ek poliki-poliki jarduera hori saihestea lor dezakezu. Objektu-motaren arabera, objektua txikitzeko, zatiak kentzen joan zaitezke.

Denbora mugatu



Utziko bagenio, Emily-k bideo-zinta bera ikusiko luke behin eta berriz.

Ulertzeko gakoak


- Zenbaitetan hainbat haur autista liluratuta geratzen dira liburu, marrazki, bideo-zinta eta abar jakinekin. Ondoren, gauza berari buruz hitz egiten dute, besteen interesak kontuan hartu gabe.
- Zenbait gai dira zinta horietako sekuentzia osoak edo pertsonaiak irudikatzen. Hasieran, irudimen-jolasak diruditen arren imitazioa besterik ez dira.
- Ahozko lengoaia garatu duten haurrak zenbaitetan gai jakinen “mende” geratzen dira, adibidez, dinosauroak edo ordenagailu-jokoak. Halako interesak, euren adineko haurren oso antzekoak dira; diferentzia nagusia, haur autistek ematen dioten ikuspegi obsesiboa eta euren bidean oztupoak aurkitzen dituztenean erakusten duten pertseberantzia dira.

Estrategia erabilgarriak

- Pizgarri gisa bideoa erabili. Emily-k denbora ikusi gabe eman badu, sari gisa ikusten utzi. Horrenbestez, lehenago edo beranduago zinta ikusteko aukera duela jabetzen denean, ikusi ezin duen denbora errazago jasango du. Era berean, beste hainbat egoeratan ere sari gisa erabil daiteke.
- Emily-k lengoaia ulertzen badu, honelako gauzak esan ditzakezu: “lehendabizi... (egitea nahi duzun edozer gauza) eta ondoren bideoa”. Beti esaldi bera erabili. Horrenbestez Emily, bere bideo-zintak kendu nahi ez dizkiozula jabetuko da.
- Emily-ri “lehendabizi... eta gero...” ideia ulertzen laguntzeko, jarduerekin lotutako marrazki, sinbolo edo objektuak dituen ordutegia diseina dezakezu. Xehetasun gehiago ezagutzeko, ikus *Ondoren datorrena ezagutu - 74. or.*

- Emily-k bideoa ikusteko ideia eta eguneko une jakinak erlazioa ditzan saia zaitez. Helburua litzateke, egunean ordu betez, adibidez meriendaren ondoren, zinta ikusteko *aukera izango duela* jakinaraztea.
- Emily-k orduak irakurtzen badaki, ordulariaren ondoan, jostailuzko beste bat ezarri zinta ikusten hasteko ordua adieraziz. Bi orduak bat datozenean, bideoa piztu ahal izango du.

Ingurunea aldatu



Craig-ekin bizitzea museo batean bizitzea bezalakoa da. Gauza guztiek beti leku berean egon behar dute.

Ulertzeko gakoak

- Haur autistek sarritan gustukoa dute euren inguruko gauzak ordena jakin batean egotea. Euren ereduak ezartzen saiatzen dira, adibidez, objektu jakinak, obsesio-moduan, lerroak ordenatzen gustatzen zaie edo altzariak eurek nahi duten moduan ipintzea gustatzen zaie. Beharbada, ez zara jokabide horretaz jabetuko altzari bat lekuz aldatzen saiatzen zaren arte.
- Jokabide hori aldatzen ahalegintzeko *pixkanakako* prozesua jarraitu behar da. Oso adibide arrunta da eginkariak pixoihalean, eta sarritan komuna ez den gela jakin batean bakarrik egiten dituen haurra. Egiten duen bakoitzean aurreikusi badaiteke, gero eta maizago komunera joan dadin eta jarduera tokiarekin erlazioa dezan ahalegindu behar da. Ondoren, bere eginkariak pixoihalean egitea utz ditzan lortzeko prozesu bera jarraitu behar da. Hasieran, pixoihala jarrita duela komun-ontzian eseri beharko dugu, oihala kentzea lortu arte.

Estrategia erabilgarriak

- Ahal baduzu, Graig-i berak nahi duen moduan antolatzeko tokia eman behar diozu, bere logela adibide egokia da.
- Etxean edozein aldaketa, alfonbra berria jartzea adibidez, apurka-apurka egin beharko da. Muturreko kasuetan, alfonbra berria ipini eta gainean zaharra ezarri beharko zenuke. Poliki-poliki, hainbat asteren buruan, alfonbra zaharreko zatiak kendu, bat ere geratzen ez den arte (Benetako adibidea da!).

- Craig-ek behar bezala erreakzionatzen ez badu, eta aldaketa txikiak onartzen ez badiu, prozesuan pauso bat gehiago eman beharko litzateke. Aldaketa egin aurretik, Craig-ek gustukoa duen jarduera burutu dezan saiatu zaitez. Jarduera horrek irauten duen bitartean, aldaketa txikia egin baina amaitu aurretik gauzak bere tokian utzi. Poliki-poliki, jardueran *zehar* aldaketa garrantzitsuagoak sartu. Ohitu arte pausorik ez eman. Craig aldaketetara egokitzen ari dela antzeman daitekeenean, jardueraren amaieran nola erreakzionatzen duen ikusi.

Gauzak egiteko modua aldatu



Erosketetara goazenean Jordan-ek ibilbide bera egin nahi du beti. Oheratzeko prestakuntzak gauero modu berean egin behar dira.

Ulertzeko gakoak

- Hainbat haur autista, toki jakin batera joateko beti bide bera jarraitzen ahalegintzen dira eta bortizkeria erakusten dute beste leku batetik joan nahi bada.
- Era berean, erritu-moduan hartzen dituzten beste hainbat jarduera errepikakor asmatzen dituzte, adibidez, ibilbidean zehar gauzak ukitu *behar* dituzte.
- Zenbaitetan ohiturak ohiko jarduera bihurtzen dira familia-bizitzan. Arazoa da aurrerago beti errepikatu egin behar direla eta modu berean gainera.
- Oso ohikoa da haur autistek landutako prestaketak exijitzea ohera joateko.
- Hainbat hurrek nahi dute mundu guztia bazkaltzeko garaian ordena berean eta toki berberetan eser dadin.

Estrategia erabilgarriak

- Hugh-en ohiko jardueratakoren baten iraupena poliki-poliki murrizten saiatu. Jardueraren pausoren batekin has daiteke. Alarma bezalako seinale artifiziala erabili daiteke pauso zehatz horren amaiera adierazteko. Hasieran, pauso horrek ohiko iraupena izan beharko luke, eta Hugh-ek seinalea bere ohituraren zatia balitz bezala onartu ondoren, tartea poliki-poliki murriztu.
- Ohiko jarduerak pauso eta fase ugari dituela iruditu arren, pauso laburrena eta itxuraz garrantzi txikiena duena kentzen saiatu. Hugh-ek errazago onartuko du, garran-

tzi txikiena duten pausoak barne hartzen ez dituen ordutegia ematen bazaio (ikus *Aldaketetarako prestatu - 75. or.*)

- Hugh ordutegi horrekin gustura sentitzen denean, ohiturako pausoak poliki-poliki kendu ahal izango dira. Une horretan ere egokia da hainbat pausotan aldaketa txikiak egitea, aldaketekin toleranteagoa izan dadin animatzeko.

Laguntza, jarrerak orokortuz



Mohammed-ek haurtzaindegian gazta jaten duen arren etxean ez du probatzen.

Ulertzeko gakoak

- Irudimen eskasa eta ohituren premiak, haur autistek trebeziak ikasten dituzten eta praktikan jartzen dituzten moduan eragiten dute.
- Haur horiek jarduera modu jakin batean burutzen ikasten dute, adibidez, jertsea janzen. Zerbait pixka bat aldatzen bada, adibidez, kamiseta janzteko eskatzen badiete, beharbada, ez dute egiten jakingo.
- Haurrek sarritan jarduera jakinak toki jakinekin erlazionatzen dituzte. Eskolan marrazkiak egiten dituzten arren, beharbada, etxean bakarrik zirriboratu eta margotu nahiko dute.
- Zenbaitetan aginduak hitz berberekin eman diezaieten edo egoera guztietan pertsona berak egin dezan behar dute.

Estrategia erabilgarriak

- Haurtzaindegiaren eta etxearen artean “zubiak” ezartzen saiatu. Mohammed-ek haurtzaindegian jatea beste gauza batekin erlaziona dezan ahalegindu:
 - Haurtzaindegiko pertsonalak Mohammed-ek gazta beti plater berean jaten duela ziurtatu behar du.
 - Platera eta gazta-zati bat bere palasan sartu (begiratzen ari den bitartean).
 - Etxean gazta plater berean jaten eman. Zorte pixka batekin, otorduetan bere jokabidearen “detonatzaile” bezala jokatu du.

- Poliki-poliki haurtzaindegiko pertsonalak, gazta plater diferenteetan jan dezan saiatu behar du.
- Mohammed-ek zerbait toki jakin batean eta pertsona jakin batentzat egiten ikasten duenean, malgutasuna sistematikoki baina pixkanaka handitu behar da:
 - Poliki-poliki ematen zaizkion agindu-motak aldatu.
 - Eskaintzen zaizkion pizgarriak edo animuak aldatu edo murriztu.
 - Egoera horretan beste pertsona sartu eta zuzendaritza har dezan utzi. Helburua, Mohammed aldaketak onartzeko gai izatea eta patroï jakinetara ez lotzea litza-teke.
- Mohammed-ek zerbait berria ikasi berri duen egoeretan malgutasuna eskaintzea zaila gerta daiteke. Beharbada, jarduera berri hau beti toki berean eman dadin ahalegin berezia egin dezake. Trebetasunak egoera berri batera eraman nahi dituzunean, jatorrizko egoeratik ahal duzun guztia kopiatzen ahalegindu. Adibidez, ordena bera eta objektu berak erabiltzen saiatu, eta abar.
- Haurtzaindegian egin duen eta etxean egin dezan nahi duzun zerbait, edo alderantziz, jasotzen duen bideo-zinta erakuts diezaiokezu.

HELBIDE ERABILGARRIAK

Erresuma Batua

The National Autistic Society

393 City Road, London EC1 1NE

Telefonoa: 00441718332299

Euskal Autonomia Erkidegoa

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Hezkuntza Berrikuntzako Zuzendaritza

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 VITORIA- GASTEIZ

ISEI-IVEI Irakas sistema ebaluatu eta ikertzeko erakundea/Instituto vasco de evaluación e investigación educativa

Asturias, 9-3°. 48015 BILBAO

Tel.: 944760604. ivei@isei.euskalnet.net

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Donostiako Ordezkaritza

Andia,13. 20004 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Tel.: 943-022850

Vitoria-Gasteiz

San Prudencio, 18 etxabea. 01005 VITORIA-GASTEIZ

Tel.: 945-017200

Bizkaia

Gran Vía, 85. 48015 BILBAO

Tel.: 94-4031000

GAUTENA

Francisco López Alen, 4, 20009 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Tel.: 943-215344

gautena@sarenet.es

www.gautena.org

ARAZOAK

Pasaje de las Antillas, 2, 4. bulegoa, 01012 VITORIA

Tel.: 945-221859

APNABI

Pintor A. Gezala kalea, 1-2, 48015 BILBAO

Tel.: 94-4755704

autismo@apnabi.org

Beste hainbat helbide interesgarri:**Confederación Autismo-España**

Guadiana kalea, 38, 28224. Pozuelo de Alarcón. MADRIL

Tel.: 91-3515420

www.autismo.com

FESPAU

Navaleno kalea, 9 (El Bosque) 28033 MADRIL

Tel.: 91-7662222

apna@medusa.es

FEVAS

Pintor A. Gezala kalea, 1-2, 48015 BILBAO

Tel.: 94-4755704